



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 1a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Emergentsia sozialeko 2015eko laguntzei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Emergentsia sozialeko 2015eko laguntzei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzare 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Emergentsia sozialeko 2015eko laguntzei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
 - II.** Zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonentzako laguntzak (4. or.).
 - II.1. Laguntza bereziak (5. or.).
 - II.2. Gizarte larrialdiko laguntzak (6. or.).
 - III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (8. or.).
 - IV.** Ondorioak eta gomendioak (9. or.).
 - IV.1. Larrialdi sozialeko laguntzen deialdiaren eta laguntza berezien erregulazioaren arteko azterketa konparatiboa (9. or.).
 - IV.2. Larrialdi sozialeko laguntzen deialdiaren eta laguntza berezien ematearen 2015eko betetzeari buruzko azterketa deskriptiboa (11. or.).
 - IV.3. Larrialdi sozialeko laguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura (14. or.).
 - IV.4. Larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak emateko espedienteen lagin baten azterketa (18. or.).
 - IV.5. Amaierako ondorioa eta gomendioak (19. or.).
 1. eranskina Kontzeptuaren araberrako laguntza bereziak, Eskubide Sozialetako Departamentuak familia unitateei emandakoak (21. or.).
 2. eranskina Oinarrizko gizarte zerbitzuek familia unitateei emandako larrialdi sozialeko laguntzak, kontzeptuka (22. or.).
 3. eranskina Larrialdi sozialeko laguntzen eta laguntza berezien 2015eko deialdien azterketa konparatiboa (25. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (27. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (34. or.).

I. SARRERA

2016ko martxoaren 23an, Nafarroako Kontuen Ganberan, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren parlamentu-eskaera bat erregistratu zen, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak eskatua, Ganberak fiskalizazio txosten bat egin dezan gizarte-egoera zailean bizi diren pertsonentzako laguntzak –“*larrialdi sozialeko laguntzak*” deitutakoak– eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruz.

Zehazki, idazkian eskatzen da 2015eko ekitaldiko honako alderdi hauek azter daitezten:

- Larrialdi sozialeko laguntzen bidez eta lehendik existitzen diren laguntzen bidez diruz lagundutako kontzeptuak, bikoiztasunik dagoen ala ez aztertuta.
- Bi deialdietan eskatutako baldintzak, eta kasu guztietan eskatu diren egiaztatzea.
- Egiaztatzea ea oinarrizko gizarte zerbitzuren bat ba ote dagoen larrialdietarako laguntzei edo haien zati bati uko egin diena baldintzen bat ezin egiaztatzeagatik.
- Ea hartarako eskubidea duten herritarren aukera berdintasunaren printzipioa bermatu den, halako moduz non ez den bizilekuaren arabera desberdintasunik izan.
- Larrialdietarako laguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura aztertzea.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2016. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2016ko azarotik 2017ko otsailera bitartean.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenen, gizarte zailtasuneko egoeran dauden pertsonentzako laguntzak deskribatzen dira, horien barnean gizarte larrialdietarakoak eta laguntza bereziak daudela; hirugarrenak lanaren helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu, eta laugarrenean ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira. Gainera, hiru eranskin badaude, non 2015ean eman diren laguntza bereziak eta gizarte larrialdietarakoak zehazten diren eta bi prestazio horien ezaugarrien azterketa konparatiboa egiten den.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuetako (aurrerantzean, OGZ) eta Eskubide Sozialetako Departamentuko langileei.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Iruñeko Udaleko alkatea.
- Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilaria.


Biek ere alegazioak aurkeztu dituzte Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek, zeinek ez baitute aldaketarik ekarri gure txostenean, Ganberak haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. ZAILTASUN SOZIALEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZAK

168/1990 Foru Dekretuak gizarte zerbitzuen arloko norbanakoentzako eta familientzako prestazio eta laguntzak arautzen ditu. Zehazki, bitan sailkatzen ditu: zuzeneko prestazioak eta zeharkako prestazioak.

Honako hauek dira zuzeneko laguntza ekonomikoak: oinarrizko errenta edo gizarteratze-errenta, laguntza bereziak, familian eta gizartean integratzeko laguntzak, laguntza espezializaturako laguntzak, banakako lan-proiektuetarako laguntzak eta umezurztegietatik heldu diren pertsona helduentzako laguntzak.

Gainera, maiatzaren 17ko 33/2010 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen zonifikazioa ezarri zuen; hura dela eta, gaur egun 45 OGZ¹ daude, hurrengo mapan ikus daitekeen bezala banatuak:



Bestetik, 2015eko urrian, Nafarroako Eskubide Sozialetako Departamentuak, 10E/2015 Foru Aginduaren bitartez, "Gizarte larrialdietarako laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntza" izeneko deialdia onetsi zuen, Nafarroako Foru Komunitateko oinarrizko gizarte zerbitzuetan larrialdi sozialeko laguntza-programak egiten laguntzeko.

Ondoren, laguntza horiekin lotuta dauden alderdi orokor aipagarrienak deskribatzen ditugu.

¹ Aipatutako foru dekretuak oinarrizko gizarte zerbitzuen 44 oinarrizko eskualde ezartzen ditu; Lizarrako kasuan, bi OGZ daude (Lizarrakoa eta Aiegikoa); beraz, 45 OGZ daude.

II.1. LAGUNTZA BEREZIAK

Prestazio ekonomiko bermatuak dira, behin bakarrik jaso beharrekoak –ez aldizkakoak–, eta berariaz jasota daude 59/2008 Foru Dekretuaren bidez araututako Gizarte Zerbitzuen Zorroan.

Izaera subsidiarioa dute eta bideratuta daude larrialdiko edo bazterketa sozialeko egoerak saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei, apartekoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonen laguntzera, gastu horiek ez ordaintzeak konponezinezko kaltea ekarriko lukeenean. Helburu zehatz baterakoak dira, eta soilik erabil daitezke eman diren helbururako.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen 3422/2005 Ebazpenak ezarri zuen prestazio horren araupetzea; hartatik, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Hauek dira prestazio honen esparruan sartzen diren *kontzeptuak*:

a) Ohiko etxebizitza eskuratzea eta mantentzea: eskriturak, horniduren kontratazioa edo zorrak, maileguen zorrak, alokairuak eta abar.

b) Ohiko etxebizitzaren bizigaitasuna eta oinarrizko ekipamendua: premiazko altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar.

c) Beste batzuk: ohiko laneko lanabesak edo baliabideak konpontzea, Gizarte Segurantzako zorrak, epe ertain edo laburreko prestazioa jasotzea galarazten dutenak, eta sakelako gastuak terapia komunitate batean tratamenduan dauden pertsonentzat, eta abar.

d) Aurreko ataletan ageri ez diren beste batzuk, familia unitate eskatzaileari ekar diezazkiokeen kalte konponezinen arabera.

- *Onuradunak* bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden familia unitateak² eta banakoak izanen dira, baldintza batzuk betetzen badituzte; baldintza horietatik hauek nabarmentzen ditugu:

a) 18 urtetik 65 urtera bitartekoa izatea.

b) Benetako bizilekua modu jarraituan Nafarroan eduki izana gutxienez ere bi urteko antzintasunarekin.

c) Eskatzen den laguntzaren xedea beste prestazio batzuen barnean ez agertzea, eta abar.

Salbuesenez, gertatu ahalko da ezarritako baldintza guztiak ez betetzea, kalte konponezinak sortzen ahal dituzten arrazoi larriak edo premiazkoak dituztela frogatzen bada.

- *Gehieneko kopuru* batzuk ezartzen dira diruz lagun daitezkeen kontzeptuetako bakoitzarentzat, eta laguntzaren benetako zenbatekoa kopuru horren ehuneko jakin bat izanen da; proportzio hori ondoko eragiketaren zatidura izanen da: eskatzailearen baliabide ekonomikoak zati egokitu lekiokkeen oinarrizko errentaren zenbatekoa.

- Laguntza horiek lortzeko *eskabideak* oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkeztu beharko dira, eta horiek gizarte txosten bat eginen dute ezarritako eredu baten arabera, zenbait alderdi baloratuz (beharrizan mota, haren urgentzia, egoera sozioekonomikoa eta abar). Gainera, baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa gehitu beharko da; besteak beste, erroldatze-ziurtagiria, diru-sarreraren frogagiria edo diru-sarreraren zinpeko aitortpena, eta abar.

- Eskabideen *balorazioa* eta diru-laguntza eman izateari buruzko ebazpena Eskubide Sozialerako Departamentuko Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiaren erantzukizuna da; ebazpen horretan, zuzendaritza horrek, gainera, laguntza horiekin ordaindu diren gastuen ordainketa-frogagiriak aurkezteko gehieneko epea ezarri beharko du.

² Eskatzailea eta harekin bizi diren pertsonen honako lotura hauetakoren bat izanen dute: ezkontza edo pareko afektibitate-harremana, bigarren gradurainoko odol-ahaidetasuna eta lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasuna.

• Ebazpen honek laguntza hauen diru-laguntza izaera aitortzen zuen, eta adierazten zuen helburu bati lotutakoak direla, eta ematen diren helburu horrexetarako erabili behar direla; alabaina, Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea aldatu zuen, eta berariaz adierazi zuen laguntza hauek ez direla hartu behar helburu bati lotutakotzat.

2015ean, laguntza hauek 1.990 familia unitateri eman zitzaizkien, eta 1,8 milioi euro egin zuten, 1. eranskinean ageri den xehakapenaren arabera. 2015ean, laguntza hauek "Irauteko baliabiderik ez duten Nafarroako familientzako laguntzak" aurrekontu-partidaren barruan sartu ziren; partida horrek, funtsean, gizarteratze-errentatik heldu diren gastuak jasotzen ditu, eta hartan guztira 65,8 milioi euroko gastuak aitortu ziren guztira, ondoren ikus daitekeen bezala:

	2015eko gastua	% partidaren guztiz- koaren gainean
Gizarteratze-errenta eta bestelako laguntzak	64.016.844	97
Laguntza bereziak	1.784.864	3
Irauteko baliabiderik ez duten Nafarroako familientzako laguntzen partida, guztira	65.801.708	100

2016an, laguntza berezietarako aurrekontu-partida berariazko bat sortu zen; haren aitortutako gastuek, txosten hau idazteko datan, 1,52 milioi eurokoak dira.

II.2. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK

Jada aipatu den bezala, 2015ean sortutako laguntza hauek oinarrizko gizarte zerbitzuek egin-dako laguntza-programak finantzatzeko erabili dira, hain zuzen gabezia ekonomiko edo/eta sozio-sanitarioak dauzkaten pertsonentzat, baldin eta ostatuko, horniduretako, elikadurako, osasuneko eta hezkuntzako oinarrizko beharrianak urgentziaz eta berehala estaltzeko zailtasun larriak badituzte.

Aipatu beharra dago horrelako laguntzak eska zitzaketan oinarrizko gizarte zerbitzuen ehuneko 47k (45etik 21) jada horrelako programak egiten zituztela, eta beren aurrekontuarekin finantzatzen zituztela.

Nafarroako Gobernuaren deialdiak honako ezaugarri hauek zeuzkan:

• Diruz laguntzekoak diren *kontzeptuak* honako hauek dira:

a) Ostatua: etxebizitzaren alokairua, hipoteka-maileguren zorrak, etxebizitza berri baten edo alokairuaren kontratua, eta abar.

b) Energia: hainbat hornidura edo/eta kontratuetako altak.

c) Elikadura eta osasuna: eguneroko elikadura gastuak eta higienekoak, gaixotasun batetik heldutako gastuak edo osasun sistema publikoak estaltzen ez dituen farmazia-gastuak, eta funtzionamendu pertsonal integraturako behar diren elementuak erostea.

d) Hezkuntza, gizarteratzea eta laneratzea: gizarteratzeko edo/eta laneratzeako laguntza (hezkuntza-jarduera ez-arautuak, eta abar).

e) Aurreko ataletan ageri ez diren beste batzuk, familia unitate eskatzaileari ekar diezazkiokeen kalte konponezinen arabera.

• *Diru-laguntzen hartzailea* oinarrizko gizarte zerbitzuen titularra den toki entitatea izanen da, aipatutako programak garatzen dituena, baina honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Larrialdi sozialeko laguntza-programak egitea.

b) Programa horiek kasuko urtean betetzen ari izatea.

c) Honako baldintzak betetzen dituzten pertsonen beharrianak betetzea:

* 18 urtetik gorakoa izatea.

- * Dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren oinarrizko eskualdeko herrietako batean erroldatuta egotea.
- * Hilabetez hilabete kontatuta, familia-unitatearen baliabide ekonomikoak ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino handiagoak.
- * Indar handiko edo nahi gabeko egoera ezustekoa izatea.
- Diruz laguntzekoa den kontzeptu bakoitzerako *gehieneko zenbateko* batzuk ezartzen dira, eta laguntza bateragarria izanen da funts publiko zein pribatuetatik datozen beste batzuekin, guztien arteko zenbatekoak diruz lagundutako kontzeptuen kostu erreala gainditzen ez badu.
- Diru-laguntza jasotzeko *prozedura* oinarrizko gizarte zerbitzuak egin nahi duen programarako eskabidea aurkeztuz hasten da, deialdian ezarritako eredu baten arabera (epea hamar egun baliodunekoa izan zen, deialdia argitaratu zenetik kontatuta). Diru-laguntza Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiak emanen du, norgehiagokaren prozedura erabiliz. Oinarrizko gizarte zerbitzua izanen da eskatzaileei diruz lagundutako programaren araberrako laguntzak emanen dizkiena.

2015ean, Eskubide Sozialetako Departamentuak finantzatutako oinarrizko gizarte zerbitzuen programen bitartez laguntzak eman zitzaizkien 3.013 familia unitateri; guztira, 1,57 milioi euro bideratu ziren horretara. 2. eranskinean ageri dira xehetasunak. 2015ean, laguntza horiek "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak" aurrekontu-partidaren barruan kontabilizatu ziren; partida horrek oinarrizko gizarte zerbitzuen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuen finantzaketatik heldutako gastuak erregistratzen ditu. Partidaren guztizko betetzea 14,93 milioi eurokoa izan zen, hurrengo taulan ageri den bezala:

	2015eko gastua	% partidaren guztizkoaren gainean
Oinarrizko gizarte zerbitzuaren funtzionamenduaren finantzaketa	11.339.789	76
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, OGZ	1.585.806	11
Gizarte larrialdiko laguntzak	2.000.000	13
Oinarrizko gizarte zerbitzuen partida, guztira	14.925.595	100

Taulak ageri duen bezala, 2015eko aurrekontuari bi milioi euroko gastuak egotzi zitzaizkion; gero, 2016an, oinarrizko gizarte zerbitzuek justifikatutako zenbatekoak kontuan hartuta, gertatutako aldeari zegokion itzulketa egin zen; deialdiak, azkenean, 1,57 milioi euroko betetzea izan zuen.

2016an, laguntza horiek, halaber, aurrekontu-partida independente batean kontabilizatu dira, eta txosten hau idazteko garaian aitortuta dagoen gastuak 1,76 milioi euro egiten du.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira lan honen helburuak, Parlamentutik jaso dugun eskaria kontuan hartuta:

- Laguntza berezien eta gizarte larrialdietakoen deialdien azterketa konparatiboa egitea.
- Larrialdi sozialeko laguntzen deialdiari dagokion gastuaren eta 2015ean laguntza bereziak ematek heldutako gastuaren betetzea aztertzea, egiaztatuz ea oinarritzko gizarte zerbitzuren batek uko egin ote dien horrelako laguntzei eskatutako baldintzak ezin egiaztatzeagatik.
- Larrialdi sozialeko laguntzak emateko prozedura eta haien gaineko kontrola berrikustea, egiaztatuz, gainera, ea horrelako laguntzetarako eskubidea duten herritar guztien aukera berdintasunerako printzipioa bermatu den.
- Nafarroako Foru Komunitateko oinarritzko gizarte zerbitzu guztietan emandako eta ukatutako larrialdietako laguntzen lagin baten fiskalizazioa egitea, honako hauek egiaztatze aldera: aplikatutako prozedurak, haiek aplikatzekoa den araudiari egokitzen zaizkion, eta faktura bera bi laguntzen bitartez lagundu den, gastu horren zenbatekoak gaindituz.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta, funtsean, betetzeari buruzko fiskalizazioei dagokien laugarren mailako ISSAI-ES araua aplikatu da.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- Gizarte larrialdietarako laguntzen 2015eko eta 2016ko deialdiak eta laguntza bereziei aplikatzekoa zaien araudia.
- Bi laguntza horien aurrekontu-partiden 2015eko betetzea; eta, laguntza bereziei dagokienez, aurreko urteetako betetzea.
- Aldez aurretiko lanak egiten ari ginen bitartean, antzeman genuen oinarritzko gizarte zerbitzuek ez zutela prozedura komun bat; hori dela eta, erabaki genuen haiek guztiak sartzeari azterketa-laginean. Bilerak egin genituen oinarritzko gizarte zerbitzu guztietan laguntza hauek ematearekin inplikaturako langileekin, larrialdi sozialeko laguntzei aplikaturako emate-, kudeaketa- eta kontrol-prozedurak aztertze aldera; gainera, aztertu genuen laguntza berezien prozeduratik oinarritzko gizarte zerbitzuek kudeatzen duten atala.
- Larrialdi sozialeko laguntzen 197 espedienteren lagin bat aztertu genuen –235.621 euro egiten dute, 45 oinarritzko gizarte zerbitzuetakoak dira eta diruz lagundutako gastu guztiaren ehuneko 15 dira–, bai eta emandako laguntza berezien 100 espediente –103.540 euro egiten dute, diruz lagundutako guztiaren ehuneko sei–.

Gure lanean eragina izan duen mugak zerikusia du gastu bat bi laguntza moten bitartez gainfinantzatuta egoteko aukerari buruz egindako azterketarekin. Departamentuak ez ditu eskatzen ostaturako laguntza berezien gastuaren justifikazioa (alokairua edo mailegu-kuotak); bestetik, batzuetan, gastu horren edo bestelako gastuen frogagirik ez dute behar adina informazio jasotzen zer aldiri buruzkoa den egiaztatu ahal izateko. Arrazoi horiek direla eta, gure laginean jasotako kasuren batean, ezin izan dugu egiaztatu fiskalizaturako laguntzen artean ba ote dagoen fakturako zenbatekoaz goragokoa den diru-laguntzarik.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, baita antzeman diren balizko hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

IV.1. LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ETA LAGUNTZA BEREZIEN ERREGULAZIOAREN ARTEKO AZTERKETA KONPARATIBOA

3. eranskinean, 2015eko larrialdi sozialeko laguntzen deialdiaren eta laguntza berezien erregulazioaren alderdi aipagarrienen azterketa exhaustibo bat jaso dugu. Jarduketa honi dagokionean honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Laguntza bereziak zuzenean ematen dizkie Eskubide Sozialetako Departamentuak haien hartzaile direnei, eta prestazio bermatuak dira, urte osoan zehar eska daitezkeenak. Larrialdi sozialeko laguntzak, berriz, ez dira bermatuak eta oinarritzko gizarte zerbitzuei ematen zaizkie laguntza-programak egiteko, beren biztanleen beharrezan arabera, 2015ean zehar; horietarako, eskabidea aurkeztu behar izan da, eta epea hamar egunekoa izan da, 2015eko urrian deialdia argitaratu zenetik kontatzen hasita.

- Laguntzak emateko epeak nabarmen desberdinak dira, zeren eta laguntza berezien kasuan zenbait hilabete pasa baitaitezke; larrialdi sozialeko laguntzak, berriz, ia berehala ematen dira.

- Azken hartzaileen baldintzak aintzat hartzen dugun laguntza motaren arabera aldatzen dira. Honako alde hauek nabarmenduko ditugu:

a) Laguntza bereziak eskuratzeko, beharrezkoa da gutxienez ere bi urte erroldatuta egon izana oinarritzko gizarte zerbitzuaren erreferentziako eskualdean; larrialdiko laguntzetarako, berriz, erroldatuta egotea besterik ez da eskatzen.

b) Laguntza berezi bat jasotzeko adin-tartea 18 eta 65 urte artekoa da; larrialdi sozialeko laguntza bat jasotzeko, berriz, eskatzen den bakarra da onuraduna 18 urtetik gorakoa izatea.

c) Laguntza berezi bat jasotzeko bidea ematen duten gehieneko diru-sarrerak dira familia unitateari legokiokeen oinarritzko errentaren bi halako; larrialdiko laguntzak jasotzeko, berriz, diru-sarrerak lanbidearteko gutxieneko soldataren 2,5 halako izan daitezke gehienez, familia unitateko kideak direnak direla ere.

- Diruz laguntzekoak diren kontzeptuei dagokienez, bietan bat datozenak badaude: etxebizitzaren eskriturak, alokairua, hipoteka-maileguen kuotak eta elektrizitate, ur eta gasaren horniduren kontsumoa.

Kontzeptu batzuk badaude laguntza berezietan baizik jasotzen ez direnak (esate baterako, Gizarte Segurantzarekiko zorrak), eta beste batzuk, aldiz, larrialdi sozialeko laguntzetan baizik ez daude jasota (elikadura-gastuak edo gaixotasun batetik heldutakoak edo farmazia-gastuak). Nolanahi ere, bi laguntzek zehaztu gabeko kontzeptuak finantzatzeko aukera ezartzen dute, baldin eta familia-egoeraren premia edo larritasunak hori eskatzen badu.

- Ematen diren larrialdi sozialeko laguntza guztiak beren gastu- eta ordainketa-egiaztagiriek bermatu beharko dira, dagokion kontrol-organoak egiazta ditzan, eta emandako laguntza bakoitzaren espedientean jasoko dira. Laguntza berezien kasuan, ordainketen frogagiriak aurkeztu beharko dira haiek ordaintzeko; aplikatzekoa den araudian jasota dagoen arren, departamentuak, alokairuetarako eta mailegu-kuotetarako, ez ditu egiaztagiri horiek eskatzen, zeren eta prestazio bermatuak direla jotzen baitu. Horri dagokionez, Ganbera honek uste du egiaztagiri horiek kasu guztietan eskatu beharko lirartekeela.

- Laguntza bereziak kontzeptu bererako bi urtez jarraian eska daitezke, deialdian horretarako ezarritako muga gainditzen bada; larrialdietakoek, aldiz, ez dute horri buruz ezer zehazten.

Txosten honen norainokoaren geroko egitate gisa, nabarmendu behar dugu Eskubide Sozialetako Departamentu kontseilariaren maiatzaren 9ko 18E/2016 Foru Aginduaren bidez gizarte larrialdietarako laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntzen deialdia onetsi zela. Egindako deialdi berrian, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Ezin izanen dira izapidetu batera zenbateko/kontzeptu/faktura bererako diru-laguntza honen kargurako udalaren larrialdiko laguntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren laguntza berezia.

- Hileroko baliabide ekonomikoak eskala progresibo baten arabera ezartzen dira, eta eskala hori familia unitateko kideen kopuruaren arabera da.

- “Egoera ezustekoaren” aipamena kentzen da, eta honako baldintza hau ezartzen da haren orde: *“Bazterketa sozialeko egoerak saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei, apartekoei, aurre egiteko zailtasunak izatea”*.

- Aipatzen da, gainera, oinarrizko gizarte zerbitzuak txosten bat eginen duela eskaera bakoitzaren baloratzeko, eta bertan berariaz adieraziko dela familia unitate bakoitzarentzat izapidetutako edo hari emandako zenbatekoak, beste laguntza batzuetako zenbatekoak gehituta, ez duela gainditzen bete beharreko beharrendaren kostu erreala.

Gainera, 2017ko apirilean, Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariaren 14E/2017 Foru Agindua argitaratu zen, toki entitateentzako diru-laguntza deialdi bat onesten duena gizarte larrialdietako laguntzak eta/edo gizarteratze prozesuetan laguntzekoak banatzeko. Honako hauek izan dira deialdi horretan sartutako hobekuntza nagusiak:

- Laguntzen izena aldatzen da, haiek modu zabalagoan hartuz; hain zuzen, gizarteratze prozesuetarako laguntzak ere jasotzen ditu.

- Kontrol-neurri berri batzuk badaude, oinarrizko gizarte zerbitzuek erabili behar duten tresna informatikoan; horrekin saihestu nahi da faktura bererako larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak eman daitezela.

- Deialdiak jasotzen du laguntza hirugarrenei ordaintzeko aukera; horretarako, onuradunak berariazko baimena eman beharko du.

Azken batean, larrialdi sozialeko laguntzetarako deialdia 2015eko urriaren erdi parean argitaratu zen, urte horretako egoera ezustekoei arreta emateko, eta laguntza bereziek jada jasotzen zituzten kontzeptu batzuk jaso zituen; eta kontzeptu horiek dira guztizkoan munta handiena dutenak, hurrengo atalean erakusten den bezala, eta laguntza horiek jasotzeko baldintzak ez dira hain estuak –hori dela eta, laguntza horiek biztanleriako kolektibo gehiagok har ditzakete–; azkenik, laguntzak emateko epeak nabarmen arinagoak dira. Bestetik, kudeaketa hori oinarrizko gizarte zerbitzuei aldatzerakoan, lan-zama handitu egin zen, lehendik ere zeukaten denbora-tarte txikia ikusita, baina baliabide pertsonalak ez dira handitu.

IV.2. LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ETA LAGUNTZA BEREZIEN EMATEAREN 2015eko BETETZEARI BURUZKO AZTERKETA DESKRIPTIBOA


IV.2.1. 2015eko LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BETETZEA

Txosten honen 2. eranskinean, kontzeptu bakoitzarengatik oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak eman dituen larrialdi sozialeko laguntzen xehetasunak erakusten dira. Eskubide Sozialetako Departamentuak deialdi horren betetzeari buruzko txosten bat egin zuen, eta honako datu hauek atera ditzakegu hartatik:

- 2,12 milioi euro egiten duten laguntzak eskatu ziren, baina baimendutako gastua bi milioikoa izan zen, zeren eta horixe baitzen zegokion partidaren zenbatekoa, eta eskatutako laguntzak honako irizpide hauen arabera hainbanatu ziren: eskualdean gizarteratze-errenta 2014an jaso zuten familia unitateen kopurua; eskualdean 2014an emandako laguntza berezien kopurua eta eskualdean 2014an zeuden langabetuen kopurua.

- Eskubide Sozialetako Departamentuaren kargura azkenean betetako diru-laguntza 1,57 milioikoa izan zen, eta guztira 5.316 laguntza eman ziren; halere, familia unitateei azkenean emandako zenbatekoa 1,69 milioikoa izan zen: alde hori, kasuan-kasuan, oinarrizko gizarte zerbitzuek finantzatu dute (oinarrizko gizarte zerbitzuen ehuneko 44k laguntzak kofinantzatu zituzten). Horrek esan nahi du batez besteko laguntza 295 eurokoa izan zela.

- Larrialdi sozialeko laguntzen gastua honela banatu zen oinarrizko gizarte zerbitzuen barrutien arabera, 33/2012 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraituz:




Barrutietako biztanleen kopuruak eta Nafarroak barrutien arabera daukan egoera ekonomiko desberdinak eragin dute laguntzen ehuneko 49 Iruñean eta Iruñerrian izatea, eta ehuneko 24, berriz, Tuteran. Ipar-mendebaldeko eta Ipar-ekialdeko barrutiak, dira, beraz, betetako diru-laguntzaren guttizkoan gastu gutxien egin dutenak.

- 5.316 laguntza horiek 3.013 familia unitateri eman zitzaizkien. Unitate horiek 9.604 pertsonak osatzen zituzten, horietatik 3.709 adingabeak. Familia unitate bakoitzak, batez beste, 2,96 kide zituen. Familia unitate bakoitzak batez beste jasotako guttizko zenbatekoa 520 eurokoa izan zen.

Nabarmentzekoa da, gainera, 2015ean larrialdi sozialeko laguntzak jaso zituzten 664 familia-unitatek laguntza bereziak ere jaso zituztela. Familia horiek laguntza jasotzeko kontzeptuak bat etor daitezke ala ez; bat ez datozenean, faktura berarengatik izan daiteke ala ez.

- 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik, 30k emandako diru-laguntza osorik bete zuten. Hori egin ez zuten 15 entitateetatik, bostek ehuneko 75etik gorako justifikazioa aurkeztu zuten, eta gainerakoek ehuneko txikiagoan egin zuten, prozedura egokiak behar den denboran eta moduan egiteko izandako zailtasunengatik.

- Ondoren ikus daitekeen bezala, egindako gastuaren ehuneko 45 ostatu-gastuetarako izan zen; ehuneko 26, elikadurarako eta osasunerako; ehuneko 12, energiarako; ehuneko 11, beste kontzeptu batzuetarako eta gainerako ehuneko sei, berriz, hezkuntzarako eta gizarteratzerako zein laneraterako.



- Oinarrizko gizarte zerbitzu guztiek departamentuaren diru-laguntza jaso zuten, baina batzuek eskabide batzuen laguntzei ezezkoa eman zieten, txosten honen IV.3 atalean azaldutako arrazoiengatik.


IV.2.2. LAGUNTZA BEREZIEN 2015eko BETETZEA

I. eranskinak laguntza berezietan 2015ean egindako gastuaren xehakapena jasotzen du, kontzeptuaren eta onuradunen kopuruaren arabera. 2.490 laguntza eman ziren, 1,78 milioi euro egi-ten dutenak; horrek 717 euroko batez besteko laguntza esan nahi du.

- Honako hau da laguntza berezietan egindako gastuak azken bost urteetan izan duen bila-kaera:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%), 2015/2011	Aldea (%), 2015/2014
Laguntza berezie- tako gastua	867.412	1.348.366	1.772.771	1.862.130	1.784.864	106	-4


- Honako hau da Nafarroako barrutietan gastuak izan duen banaketa:



Larrialdi sozialeko laguntzekin gertatzen zen bezala, prestazio horiek Iruñean eta Iruñerrian (ehuneko 67) eta Tuteran (ehuneko 14) kontzentratuta daude.

- 2.490 laguntzak 1.990 familia unitateen artean banatu ziren; 8.114 pertsonak osatzen zituzten unitate horiek. Familia unitate bakoitzak, batez beste, 4,08 kide zituen. Familia unitate bakoitzak batez beste jasotako zenbatekoa 897 eurokoa izan zen.

- 2015ean betetako gastuaren ehuneko 57 ohiko etxebizitzarekin lotutako gastuetara bideratu zen (errentamendua, maileguak, hornidurak eta abar), eta gainerako ehuneko 43a, berriz, beste gastu batzuetara (altzariak, Gizarte Segurantzarekiko zorrak eta abar).



IV.3. LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZAK EMATEKO, KUDEATZEKO ETA KONTROLATZEKO PROZEDURA

Larrialdi sozialeko laguntzen deialdiak oinarrizko gizarte zerbitzuek diru-laguntza eskatu eta justifikatzeko prozedura ezartzen zuen, eta balizko onuradunek bete beharreko baldintza batzuk ere aipatzen zituen, baina ez zuen zehazten nola bete behar ziren laguntza-programak; hori dela eta, eta deialdia 2015eko urriaren erdi parean argitaratu zenez eta diru-laguntzak urtearen amaierara arte baizik ezin zirenez eman, oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak egokientzat jo zituen prozedurak aplikatu zituen, eskura zituen bitarteko pertsonal eta materialak kontuan hartuta.

Jada aipatu dugun bezala, 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 21ek gisa honetako laguntzen programa bat zeukaten, ordenantza batean arautua, deialdia argitaratu baino lehen. Arrazoi horiek eragina izan zuen, halaber, oinarrizko gizarte zerbitzuek prozedura desberdinak aplikatzean.

Ondoren, egindako azterketaren laburpen-taula bat erakusten dugu, oinarrizko gizarte zerbitzuek aplikatutako emate-, kudeaketa- eta kontrol-prozeduren alderdi garrantzitsuenekin eta datu horiek aztertuta atera ditugun ondorioekin:

Aztertutako prozeduraren faseak	%, oinarrizko gizarte zerbitzuen guztizkoaren gainean
Hartzaileak hautatu:	
Oinarrizko gizarte zerbitzuak balizko onuradunak bilatu	47
Balizko onuradunek eskabidea egin	33
Aurreko bi aukerak	20
Balizko onuradunen baldintzak:	
Foru deialdikoak erabili	82
Udal bakoitzaren ordenantzakoak erabili	11
Gizareratze-errentaren hartzaile izateko eskatzen direnak	7
Eskatutako baldintzak jasota egotea:	
Jasota dago	60
Ez dago jasota	40
Laguntza eskatzeko dokumentua egin:	
Bai	87
Ez	13
Balorazio sozialeko txostena egitea:	
Bai	56
Ez	44
Laguntza zein zor edo gastutarako eskatzen den, haren egiaztatzea eskatu	
Bai	82
Ez kasu guztietan	18
Jada ordainduta dauden gastuak diruz laguntzekoa den kontzeptu gisa onartu:	
Bai	84
Ez	16
Diruz laguntzekoak diren kontzeptuen gehieneko zenbatekoak zehaztu:	
Foru deialdian zehaztutakoak	67
Udal bakoitzaren programarenak edo bestelako muga batzuk, deialdikoak gainditu gabe	33
Laguntzak ukatzea:	
Bai	20
Ez	80
Laguntzen ordainketaren hartzailea:	
Laguntzaren onuraduna	31
Zorra hartzekoduna	24
Biak	45
Laguntzaren erabilera gerora justifikatu:	
Jasota dago	38
Ez dago beti jasota	58
Ez dago jasota	4
Programa berekiaren arabera emandako laguntzak departamentuarentzako justifikazioan sartu:*	
Bai	62
Ez	38

*Kasu honetan, lortutako ehunekoa beren programa zeukaten 21 oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzkoa da, eta ez dauden 45ei buruzkoa.

HARTZAILEEN ETA BALDINTZEN HAUTAKETA

- Behin oinarrizko gizarte zerbitzuek deialdia zegoela ezagututa, 21 oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileak bildu ziren erabakitzeko, familia unitate bakoitzaren beharrianaren arabera, zerbitzuaren zein erabiltzaile izan zitezkeen laguntza horien hartzaile, eta haiekin zuzenean hitz egin zuten, haiek eska zitzaizkien; 15 oinarrizko gizarte zerbitzutan laguntzak balizko onuradunen eskabideen arabera eman ziren; gainerako bederatzietan, edo erabiltzaileei deitu zitzaizkien edo laguntzak eskatu ziren.

Emateko irizpideak, erabiltzaileekin harremanetan jarri direnak langileak diren kasuetan, askotarikoak izan ziren: familia bakoitzeko zenbaterako finko bat, gizarteratze-errentaren hartzaileak; kolektibo batzuk lehenetsi (65 urtetik gorakoak, adingabeak dituzten familiak), zerbitzuaren erabiltzaileak, eta abar.

Laguntzak eskatzeko kasuan, bi irizpide desberdin erabili ziren: eskabideen hurrenkera ala eskabideak jaso eta gero familia-unitate bakoitzaren beharra baloratu.

- Erabiltzaileei deitzeko edo eskabideak baloratzeko kontuan hartutako baldintzak 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 37tan departamentuaren deialdian eskatutakoak dira; bostetan, ordenantzan bertan ezarritakoak eta gainerako hiruretan gizarteratze-errenta jasotzeko eskatutakoak (azken horiek dira murriztaileenak).

45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 27tan berariaz jasota dago baldintzen betetzea frogatzen duen dokumentazioa; gainerakoetan, ez dago jasota zergatik ez zen eskatu, zeren eta, esan digutenaren arabera, hartzaileak jada zerbitzuaren erabiltzaileak baitziren eta oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileek familia unitate bakoitzaren inguruabarrak ezagutzen baitzituzten.

ESKABIDEA, BALORAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEA

- 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 39tan, laguntza-eskabide bat formalizatu zen; 25 oinarrizko gizarte zerbitzuek balorazio sozialari buruzko txosten bat egin zuten, laguntzaren beharra justifikatuz; eta 31tan familia unitate bakoitzeko laguntza emateko ebazpen bat dago.

Eskabidea formalizatzeko prozesu honetan, nabarmentzekoa da bi oinarrizko gizarte zerbitzutan gastu bererako batera izapidetu ziren larrialdi sozialeko laguntza eta laguntza berezia; kasu horietan, eskatzaileak itzulketa-konpromiso bat sinatu du, eta hura bete egin behar zuen baldin eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren prestazioa jasotzen bazuen.

- 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 37tan diru-laguntza zein zor edo gastu ordaintzeko eskatua zen haren justifikazioa exigitzen zen; gainerako zortzietan, ez zen kasu guztietan eskatzen.

Zazpi oinarrizko gizarte zerbitzutan, horien artean Tuterakoan, zeina nabarmentzen baita emandako laguntzen zenbatekoarengatik eta kopuruarengatik, eskatzaileek lehenik jada ordainduta zeuzkaten gastuak onartu dira: deigarri gertatzen da hori, zeren eta deialdian deskribatutako helburua baita larrialdiko egoerak artatzea.

- 30 oinarrizko gizarte zerbitzutan, diru laguntzekoa den kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoak departamentuaren deialdian zehaztutakoak izan ziren; gainerako 15etan edo programa berekian jasotakoak dira edo bestelako gehieneko edo kopuru finkoak ezarri ziren, betiere deialdikoak gainditu gabe.

- Bederatzi oinarrizko gizarte zerbitzutan 73 eskabideren laguntzak ukatu ziren; honako hauek izan ziren arrazoi ohikoenak: ehuneko 68an zorrak zeuden eskatzailearen udalarekiko (beste oinarrizko gizarte zerbitzu batzuetan, aldiz, horrelako zorretarako diru-laguntzak eman ziren, nahiz eta deialdian aukera hori ez zegoen jasota); ehuneko 27an, aurrekontu-kreditua agortuta zegoen; eta gainerako ehuneko 5ean, laguntzak ukatu ziren deialdiko balditzaren bat ez betetzeagatik.

ORDAINKETA ETA GEROKO JUSTIFIKAZIOA

- Oinarrizko gizarte zerbitzuetarako laguntzaren ordainketan erabili zen prozedura eta esku hartu zuten langileak nabarmen aldatu zen, eta ezin dugu patroik komunik ezarri.

- Ordainketak 14 oinarrizko gizarte zerbitzutan zuzenean laguntzaren onuradunari egin zitzaizkion; 11tan, berriz, zor horien hartzekodunei, eta gainerako 20 kasuetan, deialdiak aukera hori jasotzen ez bazuen ere, hirugarrenei. Kasuren batean, idazkaritzako edo kontuhartzaitzako langileek ez zuten baimenik eman hirugarrenei ordaintzeko, horrek Diru-laguntzei buruzko Foru Legea urratzen zuelakoan.

Laguntzak zuzenean hirugarrenei ordaindu zitzaizkien 31 kasuetatik, 13tan jasota dago eskatzaileak ordainketa hori egiteko emandako baimena.

- Laguntzaren geroko justifikazioa, laguntza zein helburutarako eman zen hartarako erabili dela, 17 oinarrizko gizarte zerbitzutan jasota dago; 26tan ez da beti eskatu, eta gainerako bi kasuetan ez dago jasota.

Bi kasu hauetako bat Iruñekoa da, zeinak bere ordenantzako prozedurak aplikatu eta justifikazio horren orde beharizan hori frogatzen duen gizarte langilearen txosten tekniko bat jartzen baitu.

- Laguntzak eman ondoren, oinarrizko gizarte zerbitzuek txosten tekniko eta ekonomiko bat aurkeztu behar zioten Eskubide Sozialetako Departamentuari programaren betetzeari buruz, jasotako diru-laguntzaren justifikazio gisa. Horri buruz, esan beharra dago lehendik programa bat zeukaten 21 oinarrizko gizarte zerbitzuetatik 13k beren programen bitartez emanak zituzten laguntzak sartu zituztela justifikazio horretan. Laguntza horiek eman ziren, horrenbestez, udal horien ordenantzetan ezarritako baldintzen arabera, zeinak, oro har, murriztailegoak izaten baitira deialdi horretan jasotakoak baino.

Azken batez, Eskubide Sozialetako Departamentuaren deialdian programen garapenari buruzko zehaztapenak falta zirenez eta denbora nahikorik ez zegoenez, oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak egokientzat jo zuen prozedura erabili zuen. Arrazoi horrek, eta horrekin batera beste arrazoi batzuek –biztanleriatik heldutako beharizan desberdinak eta barruti bakoitzaren egoera ekonomikoa, oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak baliagarri zeukan aurrekontua eta deialdiak alderdi batzuetan zeukan zehaztapen falta– eragin zuten ematerako, kudeaketarako eta kontrolerako prozedura desberdinak aplikatzea bizilekuaren arabera; horri dagokionez, nabarmendu beharra dago desberdintasun horiek, udal kudeaketaren beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, laguntza horiek sortu baino lehenago ere existitzen zirela, zeren eta oinarrizko gizarte zerbitzu guztiek ez baitzuten laguntza horiek arautzeko programarik, eta programak zeuden kasuetan ere ez baitzituzten baldintza berak eskatzen edo kontzeptu berak biltzen, eta kontzeptu horiek ez baitziren diruz laguntzen zenbateko berdinen arabera. Gainera, batzuetan, oinarrizko gizarte zerbitzuek beren programa berekietan ezarritako baldintza, zenbateko eta prozedurak aplikatu dituzte, departamentuaren deialdian jasotakoez desberdinak; horri buruz, Ganbera honek uste du deialdian jasotako parametroak erabili beharko zirela, beren zabaltasun guztiarekin.

2016ko ekaineko eta 2017ko apirilko deialdiak argitaratzearekin, aurrez azaldutako hobekuntzez gainera, oinarrizko gizarte zerbitzu guztiak bat datoz esaterakoan zenbait alderdi positibo badaudela, 2015eko deialdiarekin alderatuta; horietatik, honako hauek nabarmendu behar ditugu: laguntzen plangintza hobea; datuak kudeaketa errazten duen aplikazio informatiko batean sartzeko betebeharra; laguntzak emateko beharrezkotzat jotzen diren dokumentu guztien lanketa (erabiltzailearen eskabidea, balorazio sozialeko txostena eta emateari buruzko ebazpena), eta diru-sarreraren baldintzaren aldaketari buruzko balorazio positiboa –izan ere, familia unitateko kide kopuruaren arabera da–. Aurrekoa gorabehera, eskatzen jarraitzen dute oinarrizko gizarte zerbitzu guztientzako jarduketaren prozedura komun bat egon dadila, laguntza hauek eman, kudeatu eta kontrolatzeko irizpideak berdinak izan daitezen eskatzaile guztientzat; deialdia urtero egin dadila eta ahal bezain arin argitara dadila; eta azpimarratzen dute honek guztiak lan-zama gehigarria ekarri diela, baina giza baliabideak handitu gabe.

IV.4. LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZAK ETA LAGUNTZA BEREZIAK EMATEKO ESPE- DIENTEEN LAGIN BATEN AZTERKETA

Lagin bat hautatu ahal izateko, kontuan hartu behar izan genuen 664 familia unitate zeudela 2015ean larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak jaso zituztenak. Aztertutako laguntza berezien 100 espedienteetatik gehienak 2015ean larrialdi sozialeko laguntzak jasotako familia unitateei zegozkien, eta lehendik zeuden gure laginean. Gainerakoak beren zenbatekoaren edo kontzeptuaren arabera garrantzitsutzat jo genituen beste laguntza batzuk dira. Ondoren deskribatuko ditugu egindako fiskalizazioaren ondorioak.

IV.4.1. 2015eko LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZEN LAGINA

Kontuan hartuta larrialdi sozialeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko prozedura nabarmen desberdina izan zela oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzean, gure laginean haiek guztiak sartu ditugu. Zehazki, 45 oinarrizko gizarte zerbitzuetako 197 espediente aztertu ditugu: 235.621 euro egiten dute.

IV.3 atalean prozedurari buruz azaldutako oharrez gainera, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu espediente horien azterketari buruz.

- Oro har, laguntza hauen bidez konponbidea eman nahi zaien egoerak ez diote erantzuten larrialdi puntual edo koiunturako bati; izan ere, eskatzaileen diru-sarreraren beharrez jarraituei erantzuten diete.

- Diruz lagundutako zenbatekoak batzuetan nekez ahokatzen dira deialdian jasotakoetan, zeren eta ez baitiete erantzuten ezusteko egoerei edo larrialdikoei (unibertsitate-egoitza bateko gastua, haurtzaindegiko gastua igerilekuetarako paseak, futbol entrenamenduetako kuotak eta abar).

- Ez da beti jasota gelditzen baldintzak betetzearen justifikazioa, zeren eta gehienetan, oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileek aipatzen digutenez, balizko onuraduna ezagutzen baitute edo dokumentazio hori jada familia unitatearen espedientean baitago.

- Aztertutako 53 espedientetan –guztira, 22.544 euro egiten dute– ez dago jasota laguntzaren xedearen justifikazioa, bereziki elikadura gastuei dagokienez, nahiz eta deialdian justifikazio hori eskatzen zuen.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago, lehendik aipatu den bezala, Iruñeko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuak, bere ordenatzako irizpideei jarraituz, laguntzaren xedearen justifikazioaren orde txosten tekniko bat jartzen du; horrenbestez, justifikazio hori ez dago jasota izapidetu zituen 1.207 espedientetako bakarrean ere; 366.067 euro egin zuten espediente horiek.

Bidezkoa litzateke, beraz, laguntza horietarako deialdia egin zuen departamentuak inguruabar horiek aztertu eta, kasua bada, ukitutako oinarrizko gizarte zerbitzuei eska diezaiela behar bezala justifikatuta ez dauden laguntzak itzultzeko.

- Aztertutako 16 espedientetan –16.570 euro egiten dute– laguntzaren eskatzaileak lehendik ordainduta zeuzkan gastuetarako diru-laguntza ematen da.

Deigarri gertatzen da Tuterako oinarrizko gizarte zerbitzuaren kasua; izan ere eskatzaileak lehendik ordainduta zituen gastuak diruz laguntzako irizpide hori aplikatu zuen izapidetu zituen 293 espedienteetatik gehien-gehienetan; 199.429 euro egin zuten espediente horiek.

Halaber, Alloko oinarrizko gizarte zerbitzuak lehendik ordainduta zeuden gastuak diruz laguntzeko irizpide hori jarraitu zuen izapidetu zituen 61 laguntzetatik gehienetan; 19.479 euro egin zuten laguntza horiek.

- Iruñeko oinarrizko gizarte zerbitzuak aldi berean izapidetzen zituen larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak, eskatzaileak konpromiso bat sinatuta, alegia, departamentuaren laguntzak jasoz gero besteak itzuli egingen zituela. Egiaztatu dugu ez dela itzulketa-betebehar horren jarraipen egokirik egin, behin laguntza berezia emanda. Gainera, egiaztatu dugu ezen, guxtienez ere 91 laguntzatan gertatu zela –33.737 euro– gastu eta faktura berarako departamentuak eta udalak diru-laguntza ematea, baina gero ez dela itzulketarik egin.

Hiru oinarrizko gizarte zerbitzuek emandako beste hiru laguntza aurkitu dira –2.241 euro dira–, zeinetan laguntza berezien bitartez ere fakturak ordaintzeko laguntza eman baitzen.

Gure iritziz, horrelako inguruabarrek ukitutako oinarrizko gizarte zerbitzuek laguntza horien itzulketarako kasuko espedienteak abiatu beharko lituzkete.

IV.4.2. 2015eko LAGUNTZA BEREZIEN LAGINA

Egiaztatu dugu laguntza horiek emateko prozeduratik oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten duten zatiaren aplikazioa, eta ea aztertutako espedienteetan faktura bererako larrialdiko laguntzen bidez eta laguntza berezien bidez diru-laguntzak eman diren faktura horren zenbatekoa gaindituta.

Oro har, Nafarroako 45 oinarrizko gizarte zerbitzuen prozedura antzekoa da, eta aztertutako espedienteetan egiaztatu dugu hori; laburbilduz: kontzepturako beste laguntzarik ez dagoela egiaztatuta, oinarrizko gizarte zerbitzuek eskabidea izapidetu eta Eskubide Sozialetako Departamentura igortzen dute, balorazio sozialeko txostenarekin eta behar den gainerako dokumentazioarekin batera (horren barrenean dago zorraren egiaztatzea edo egin nahi den edo, kasua bada, jada egin den gastuaren aurrekontua edo faktura). Normalean, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eskabidearen kopia bat badago, bai eta balorazio sozialaren txostenaren kopia bat ere.

Eskabide horiek Departamentuko Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiak baloratzen ditu; ez dugu egiaztatu balorazio hori egokia den. Laguntzaren berri interesdunari ematen zaio, eta oinarrizko gizarte zerbitzuak egitate horren berri izanen du soilik aplikazio informatiko bat kontsultatzen badu. Laguntza emateari buruzko ebazpenak ez du laguntzaren xede diren gastuen egiaztatzeak aurkezteko gehieneko eperik, arauetan ezarritakoaz beste.

Gero, eta funtsean altzarien kasurako, interesdunek egiaztatze batzuk igori beharko dituzte kasuko gastua ordaindu izanari buruz, haiei laguntza ordaindu baino lehen. Departamentuak laguntzaren erabilerari buruzko justifikazio hori ez du eskatu 788 laguntzaren kasuan –780.527 euro egiten dute–alokairu-ordainketekin edo maileguen kuotekin lotutako gastuak direla eta. Horregatik, eta batzuetan egiaztatzeak egonda ere, haietan informazio argi eta nahikorik ez dagoenez, laginean jasotako kasu batzuetan ezin izan dugu egiaztatu ea faktura bererako bi laguntzen bitartez diru-laguntza eman den, haren zenbatekoa gaindituz. Larrialdi sozialeko laguntza eta laguntza berezia jaso duten fakturek, zenbatekoa gaindituta, aurreko puntuan deskribatu ditugu jada.

Horri dagokionez, departamentuak egitate horiek aztertu beharko lituzke eta egiaztatze horiek aurkeztera premiatu, edo, kasua bada, kasuko itzulketak-espedienteak abiatu beharko lituzke.

IV.5. AMAIERAKO ONDORIOA ETA GOMENDIOAK

Ondorio gisa, Ganbera honek uste du larrialdi sozialeko laguntzetarako 2015eko deialdiak, urriaren erdi parean argitaratuak, maniobra-tarte eskasa utzi zuela oinarrizko gizarte zerbitzuen zatia, eta horiek, funts publikoak ahal den modu onenean erabiltzeko ahaleginean, egokientzat jo zituzten prozedura eta irizpideak aplikatu zituzten, erabilgai zeukaten denbora eta giza baliabideak kontuan hartuta. Horrek eta beste inguruabar batzuek –esate baterako, deialdiak puntu batzuetan zuen zehaztugabetasuna eta barruti bakoitzaren egoera desberdina– berekin ekarri zuten oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzean laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko prozedura desberdinak aplikatzea; alabaina, nabarmendu beharra dago alde horiek lehendik ere bazeudela, oinarrizko gizarte zerbitzu batzuetan laguntza horien aurretik ere programa batzuk bazeudelako, irizpide eta baldintza desberdinekin.

Gainera, bi laguntzetarako gastu handiena ekarri duten kontzeptuak (ostatua eta energia/hornidurak) bat datoz, nahiz eta diruz laguntzekoak diren zenbatekoak eta kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak bat etorri ez. Bestalde, larrialdiko laguntzen ebazpena askoz azkarra goa da laguntza bereziarena baino.

2016ko eta 2017ko larrialdi sozialeko laguntzen deialdietan, alderdi batzuk hobetu egin dira 2015ekoekin alderatuta; horien artean, nabarmentzekoa da laguntzak aplikazio informatiko batean sartu behar izatea. Aplikazio horrek, *a priori*, saihesten du kasuko gastua gainditzeko duten

laguntzak eman daitezela; halere, oraindik ere gabezia batzuk badaude (oinarrizko gizarte zerbitzu guztietarako prozedura eta irizpide komunik ez egotea, esate baterako).

Lanaren ondorio nagusiak azalduta, hona hemen gure gomendioak:

- *Gogoeta egitea larrialdi-egoerei aurre egiteko bi laguntza edukitzen jarraitzea komenigarria izateari buruz, haien kontzeptu garrantzitsuenak bat baitatoz.*

- *Hemen azaldutako egitateak aztertzea eta, kasua bada, departamentuak itzulketa-prozedura bat hastea, oinarrizko gizarte zerbitzuek ez dutenean bete jasotako laguntzaren xedea, edo/eta justifikatu gabeko laguntza bereziena, justifikatuta edukitzeko betebeharra*

- *Aipatutako gabeziak ebaluatzea eta, kasua bada, oinarrizko gizarte zerbitzuak (edo departamentuak) itzularazteko prozedura hastea faktura bererako beraren zenbatekoa gainditzen duten laguntzak jaso diren kasuetan.*

Bi laguntzei eustea erabakiz gero:

- *Larrialdiko laguntza hauek direla-eta oinarrizko gizarte zerbitzu guztientzako prozedura eta jarduketa-irizpide komunak ezartzea, ez dadin alderik gerta bizilekuaren arabera, egoerak antzekoak direnean.*

- *Larrialdiko laguntzen kudeaketarako, departamentuaren deialdian zehaztutako parametroak aplikatzea, eta ez oinarrizko gizarte zerbitzuek dauzkaten programa berekiak, deialdi horretan kontrakorik ezartzen ez den bitartean.*

- *Bidezkoa den guztietan, larrialdi sozialeko laguntzen eskaria dakarten zorren egiaztagiriak biltzea.*

- *Kasu guztietan, jasotako laguntzaren xedeari buruzko egiaztagiriak eskatzea, dela larrialdiko laguntzetan, dela laguntza berezietan, funts publikoen erabileran gardentasuna lortzearen.*

- *Laguntza berezien kasuan, aipatutako egiaztagiri horiek exigitzea laguntza eman ondoren, eskatzailea gastu horri aurre egitera ez behartzeko.*

- *Larrialdi sozialeko laguntzetarako deialdia ahal bezain arin argitaratzea, oinarrizko gizarte zerbitzuek haren kudeaketaren plangintza hobeki egin ahal izateko.*

- *Programak hobetzeko prozesuarekin jarraitzea, lan-zama gutxituko duen eta bi laguntzen artean faktura beraren zenbatekoa gainditzen duten diru-laguntza eman dadin saihesteko datu-base bakarra ezartzera iristeko.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA KONTZERTUAREN ARABERAKO LAGUNTZA BEREZIAK, ESKUBIDE SOZIALETAKO DEPARTAMENTUAK FAMILIA UNITATEEI EMANDAKOAK

Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Laguntzak, guztira			Onuradun kopurua	Gastua, guztira	
	Lojamendua	Energia	Besterik (*)			Guztira
Allo	4	5	2	11	51	9.229
Altsasu	11	4	4	19	52	16.051
Antzin-Ameskua	4	1	1	6	16	7.296
Agoitz	3	7	0	10	30	5.586
Aranguren	5	2	0	7	24	4.395
Artaxoa	5	1	4	10	39	4.941
Alegi	0	2	0	2	6	1.374
Barañain	20	8	10	38	116	32.174
Berriozar	105	91	32	228	746	148.698
Buñuel	8	6	4	18	52	13.026
Burlata	46	44	12	102	330	71.355
Zarrakaztelu	18	3	10	31	141	19.599
Cascante	13	6	9	28	122	21.247
Cintruénigo	23	8	12	43	173	41.563
Zizur	25	12	4	41	114	33.498
Corella	25	10	15	50	191	34.205
Doneztebe	0	0	1	1	4	378
Eguesibarra	59	46	41	146	462	94.638
Elizondo	1	0	0	1	1	905
Lizarra	32	8	6	46	167	40.307
Etxarri Aranatz	10	8	2	20	69	14.625
Uhartea	16	12	10	38	126	26.209
Iruitzun	14	7	4	25	75	18.655
Izaba	2	0	0	2	4	1.121
Lesaka	3	3	2	8	23	3.830
Lodosa	8	4	8	20	73	11.691
Los Arcos	0	1	0	1	8	129
Noain	44	34	17	95	295	65.857
Eriberry	11	18	5	34	124	19.667
Orkoien	7	4	6	17	42	12.925
Iruña	457	262	227	946	2.904	651.815
Azkoien	26	5	16	47	155	43.342
Gares	8	5	0	13	42	13.013
San Adrián	27	26	16	69	251	55.032
Zangoza	4	2	3	9	30	5.680
Tafalla	14	10	13	37	134	29.671

Oinarritzko gizarte zerbitzuak	Laguntzak, guztira		Onuradun kopurua	Gastua, guztira		
	Lojamendua	Energia			Besterik (*)	Guztira
Tutera	38	27	35	100	320	86.139
Ultzama	4	0	0	4	11	3.028
Valtierra	34	18	16	68	243	55.962
Viana	3	4	1	8	32	5.844
Villatuerta	1	2	6	9	32	8.391
Atarrabia	27	46	9	82	284	51.772
Orokorra, guztira	1.165	762	563	2.490	8.114	1.784.864

*Honako hauetarako emandako laguntzak bitzen ditu: Gizarte Segurantzarekiko zorrak; nahi erarako gastuak, ekipamendua eta oinarritzko altzariak.

2. ERANSKINA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEK FAMILIA UNITATEI EMANDAKO LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZAK, KONT-ZEPTUKA

Oinarrizko gizarte zerbitzuak	Laguntzak, guztira					Onuradun kopura	Gastua, guztira	Aldez aurretiko programa
	Lojamendua	Energia	Nutrizioa eta osasuna	Hezkuntza eta gizarteratzea	Beste batzuk			
Allo	15	14	19	7	6	115	19.479	EZ
Altsasu	11	6	36	0	1	102	18.243	BAI
Antzin-Ameskoa	17	3	12	0	1	92	10.720	BAI
Agoitz	2	3	20	29	7	162	13.873	EZ
Aranguren	12	9	25	62	2	153	25.000	BAI
Artaxoa	10	10	15	1	6	63	11.714	EZ
Auritz	8	1	2	0	0	16	3.688	EZ
Alegi	6	21	15	1	3	57	6.663	EZ
Barañain	27	8	12	0	7	89	32.398	BAI
Berriozar	29	3	43	0	0	161	24.851	BAI
Buñuel	20	19	15	0	13	159	29.542	EZ
Burlata	27	30	455	6	12	1.263	69.200	BAI
Zarrakaztelu	25	14	16	2	3	177	20.000	EZ
Cascante	6	11	34	6	9	111	22.658	EZ
Cintruénigo	52	88	23	19	1	342	34.000	EZ
Zizur	41	35	13	13	17	176	40.482	BAI
Corella	50	86	45	6	25	278	55.090	EZ
Doneztebe	9	15	13	0	10	34	12.592	EZ
Eguesibarra	25	25	105	216	30	703	76.011	BAI
Elizondo	22	13	2	0	6	100	12.428	BAI
Lizarra	11	13	28	2	0	142	18.728	BAI
Eixarri Aranatz	5	8	7	4	2	46	7.350	BAI
Uhartea	67	0	0	0	2	173	22.769	EZ
Iruitzun	6	2	3	2	6	41	12.057	EZ
Izaba	1	0	1	0	3	13	1.267	EZ
Leitza	1	6	51	13	2	174	8.715	BAI
Lesaka	17	8	44	3	2	78	15.882	BAI
Lodosa	11	29	11	0	6	135	22.251	EZ
Los Arcos	4	7	4	0	6	47	5.315	EZ
Noain	25	39	51	6	9	177	45.077	BAI
Eriberri	42	30	18	3	1	208	26.353	BAI
Orkoien	6	5	5	5	6	46	15.581	EZ
Iruña	493	177	441	1	95	1.897	366.067	BAI
Azkolien	66	52	89	6	19	494	50.000	EZ
Gares	9	9	8	1	1	62	11.909	BAI
Zaraitzu	2	4	1	2	0	15	1.994	EZ
San Adrián	13	19	34	7	29	150	40.308	EZ
Zangoza	10	4	11	0	3	79	10.287	BAI

Oinarritzko gizarte zerbitzuak	Laguntzak, guztira					Onuradun kopura	Gastua, guztira	Aldez aurretiko programa
	Lojamendua	Energia	Nutrizioa eta osasuna	Hezkuntza eta gizarteratzea	Beste batzuk			
Tafalla	24	49	7	10	5	120	34.321	EZ
Tutera	94	148	51	0	0	413	199.429	BAI
Ultzama	9	5	6	0	1	29	9.776	BAI
Vallierra	21	33	22	7	23	212	40.000	EZ
Viana	6	12	62	1	2	210	12.331	BAI
Villatuerta	10	7	19	8	5	93	10.500	EZ
Atarrabia	33	27	72	1	6	197	39.050	EZ
Orokorra, guztira	1.400	1.107	1.966	450	393	9.604	1.565.948	--

Iturria: geuk prestatua, Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako txostenean oinarrituta

3. ERANSKINA LARRIALDI SOZIALEKO LAGUNTZEN ETA LAGUNTZA BEREZIEN 2015EKO DEIALDIEN AZTERKETA KONPARATIBOA

Laguntza bereziak	2015eko gizarte larrialdiko laguntzak
Araudia	10E/2015 Foru Agindua
Prestazio mota	Prestazio ez-bermatua
Eskatzeko epea	10 egun baldiodun, 2015eko urriaren 14tik
Norentzat	Oinarriko gizarte zerbitzuak, larrialdi sozialeko laguntza-programak egin dituzten –halako laguntzatat ulertuko dira behin bakarrik jasotzekoak diren prestazioak, xede bati lotutakoak eta larrialdikoak–, gabezia ekonomiko edo/eta sozio-sanitarioak dituzten pertsonak, ostatu, energia, elikadura, osasun eta hezkuntzako oinarriko beharizanak betetzeko arazo larriak badituzte.
Laguntzen amaierako hartzaileen baldintzak	Erreferentziako gizarte zerbitzuaren oinarriko eskualdeko herrietako batean errolatuta egotea. Indar handiko edo nahi gabeko egoera ezustekoa izatea. Hilabetez hilabete kontatuta, familia-unitatearen baliabide ekonomikoak ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino handiagoak (1.621,5 euro). 18 urte baino gehiago izatea.
Laguntza zein xedetarako eskatzen den, xede hori ez egotea jasota beste prestazio batzuetan, eta hura ezin bideratzea Nafarroako Foru Komunitatean dauden baliabide normalizatuaren bitartez.	Oinarriko gizarte zerbitzuak departamentuari eskabidea aurkeztea eta gero erabiltzaileak oinarriko gizarte zerbitzuan eskabidea aurkeztea.
Interesdunak sinatutako eskabidea. Oinarriko gizarte zerbitzuetan aurkeztuko da.	Bizikidetasuna eta errolatzea.
Errolda- eta bizikidetasun-zurtagiria, laguntza-eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan modu jarraituan bizilekua eduki izana frogatzen duena (udal-txean eskatzen da).	Nortasunaren egiaztagiria.
NANaren fotokopia edo egoitza-baimenarena (Atzerritarren Identifikazio-txartela) edo, bestela pasaportearena.	Familia liburua.
Familia liburua, fotokopia edo familia kideen kopurua, adirazita bizikidetasun-unitatea osatzen dutenek pertsona nagusiarekiko daukaten ahaideatasun datuak.	Justifikazio ekonomikoa.
Eskatzailearen eta haren familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren frogagiriak (nominak, prestazioak, pensioak, sorospenak, lanerako ezintasun iragan-korra), egungoak eta azken sei hilabeteetakoak (eskabide egin den hilabete-koa barne).	Erantzulearen aitortpena. Intereseko beste dokumentu batzuk.
Aurrekontua, faktura edo zorraren frogagiria	
Diruz laguntzekoak	Oniko etxebizitzarekin lotutako zorrak ordaintzeko laguntza (gehienez ere sei Etxebizitzaren alokairua ordaintzea, etxebizitzaren hipoteka-maileguaren

Laguntza bereziak	2015eko gizarte larrialdiko laguntzak
<p>diren kontzeptuak eta zenbaterakoak</p>	<p>kuota ordaintzea, etxebizitza partekatuta bateko logela ordaintzea edo beste edozein motatako ostataua (pentsioa, hotela eta abar). Ohiko bizilekua izan den alokairuko etxebizitza berri baten kontratua, zelinean hasieran ordaintzeta aparteko bat eskatzen baita, baldin eta eskatzaileak gero ohiko ordaintzetei aurre egiteko modua badu. 2.000 euro bitarte familia unitate bakoitzeko.</p>
<p>Ohiko etxebizitzaren oinarriko ekipamenduarekin lotutako laguntzak, hileko lanbidearteko gutxieneko soldataren 2,7 halako bitarte. (1.751,22 euro).</p> <p>Ohiko etxebizitza egokitzearrekin lotutako laguntzak (aurrekontua lanbidearteko gutxieneko soldata 5 halako, 3.243 euro, baina txikiagoa denean) hileko lanbidearteko gutxieneko soldata 4,7 halakoren mugarekin (3.048,42 euro).</p> <p>Gizarte Segurantzarekiko zorrak, epe labur edo ertainean prestazio bat jasotzea eragozten dutenak, hileko lanbidearteko gutxieneko soldata halako 4,7 bitarte (3.048,42 euro).</p> <p>Aurreko ataletan jaso ez diren bestelako egoerak (apartekotasunaren arabera eta familia unitateentzako kalte konponezinen arabera), hileko lanbidearteko gutxieneko soldataren 4,7 halako bitarte (3.048,42 euro).</p>	<p>Elektrizitate, ur eta gas hornidurak, familia bakoitzeko 600 euro bitarte. Horniduran alta emateko kasuetan, gehieneko topearen kosturaino. Ez dira komunikazio- eta informazio-gastuak jasotzen.</p> <p>Eguneroko elikadura eta higiene gastuak, lau hila bitarte, pertsona kopuruaren araberako mugarekin (180-355 euro hilean).</p> <p>Gaixotasun batetik heldutako gastua edo Osasun Sistema Nazionalak eztabaitzen ez duen farmazia-gastua, pertsona bakoitzeko 500 euro bitarte. Funtzionamendu pertsonal integraturako elementuak erostea (gehienez 500 euro pertsona bakoitzeko).</p> <p>Gizarteratzeko edo/eta laneratzeko laguntzak.</p> <p>Oinarriko beste beharizan batzuk estaltzea. Beste egoera batzuk, haien apartekotasunaren arabera eta familia unitaterako ekar dituzaketen kalte konponezinen arabera.</p>
<p>Balorazioa, instrukzioa, ebazpena eta ordaintzeta.</p>	<p>Departamentuak oinarriko gizarte zerbitzuari programarako diru-laguntza emanen dio; gero, oinarriko gizarte zerbitzuak zuzenean emanen dio eskatzaileari, eta ordaindu eginen dio</p>
<p>Bateragarritasuna, justifikazioa eta gehieneko zenbaterakoak.</p>	<p>Oinarriko gizarte zerbitzuarentzako diru-laguntza orokorra bateragarria da funts publiko edo pribatuetatik datozen beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin. Oinarriko gizarte zerbitzuak departamentuari (2016ko urtarrilaren 31a baino lehen) honako hauek igorriko dizkio: txosten tekniko eta ekonomiko bat, diruz lagundutako programaren beteazeari buruzkoa, idazkariaren ziurtagiri bat, beste baliabide batzuekin diruz lagundutako zenbaterakoaren justifikazioa eta beharrezkoztat jo daitekeen gainerako dokumentazioa. Gastu osoak eta laguntzaren ordaintzeta justifikatuta egon behar dute dagokien euskarri-dokumentuan, eta emandako laguntzaren espedientearen jasota egon behar dute.</p> <p>Urtean eman daitekeen diru-laguntzaren guztizkoa 3.000 eurokoa da familia unitate bakoitzeko.</p> <p>Horri buruzko inongo eragozpenik ez dago.</p>
<p>Urteko eskaera</p>	<p>Bateragarria da oinarriko errentarekin.</p> <p>Hasiera batean, justifikazioa jaso behar zen, eta batzuetan zenbait kontzepturi dagokiona eskatzen da (altzariak, batez ere), baina betebeharrak hori desagertu egin da Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Legeak Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean egin zuen aldataketarekin.</p> <p>Gehieneko laguntza ezin da handiagoa izan hileko lanbidearteko gutxieneko soldata 4,7 halako baino (3.048,42 euro).</p> <p>Behin laguntza hori jasota, ezin da berriz eskatu kontzeptu bererako bi urte iragan arte, kontzeptu horretarako ezarritako muga gainditu bada.</p>

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Iruñeko Udalaren alegazioak

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatuta, fiskalizazio txosten bat egin du zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonentzako larrialdi sozialeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruz. 2015eko ekitaldiari buruzko azterketa eskatu zen, honako alderdi hauei dagokienez:

– Larrialdi sozialeko laguntzen bidez eta laguntza berezien bidez diruz lagundutako kontzeptuak, bi-koiztasunik dagoen ala ez aztertuta.

– Bi deialdien baldintzak eta kasu guztietan eskatu diren egiaztatzea.

– Egiaztatzea ea oinarriko gizarte zerbitzuren bat ba ote dagoen larrialdietarako laguntzei edo haien zati bati uko egin diena baldintzen bat ezin egiaztatzeagatik.

– Laguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura aztertzea.

Puntu horietako azkena 2015eko larrialdi sozialeko laguntzei buruz Kontuen Ganberak egin duen behin-behineko fiskalizazio txostenaren IV. atalean, *Ondorioak eta gomendioak* izenekoan, jasota daude. Atal horrek zenbait azpiatal dauzka. Zehazki, IV.3 azpiatalean, *Larrialdi sozialeko laguntzak kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura* izenburua daukanean; horretan, izan ere, Iruñeko Udalarari dagokionez, aipa daiteke, txostenak berariaz jasotzen duen bezala, duela hainbat urte larrialdi sozialeko egoeran dauden pertsona edo/eta familientzako zuzeneko prestazio ekonomikoen deialdi bat bazeukan toki entitateetako bat dela, eta 2015ean deialdi hori otsailaren 26ko 39. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela. Oinarri horiek Iruñeko Udalak aurkeztu zituen haietarako finantzaletaren eskabidearekin batera, 203. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Nafarroako Gobernuak 2015eko urriaren 13an argitaratu zuen deialdirako.

Hartara, Iruñeko Udalaren diru-laguntza banakatuaren deialdiak jada irizpide bereki batzuk bazeuzkan “onuradunak hautatzeari eta baldintzei” zegokienez, zeren eta haren D.1 atalean onuraduna izateko bete beharreko baldintzak ezartzen baitzuten. Interesdunek oinarri horietako II. eranskina bete behar zuten: “Erantzukizuneko aitortpena, onuradunak betekizunak betetzen dituela eta onuradun izateko ezein debeku ziok ukitzen ez duela ziurtatzeko”. Gainera, gizarte zerbitzuetako teknikariek eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar zuten, oinarrietako G.4 atalean jasotakoa: “Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak”. Gainera, esan beharra dago deialdi honetan eskatutako baldintzak Nafarroako Gobernuak 2015eko urriko deialdian argitaratutako oinarrietan ezarritako parametroen barruan zeudela.

“Eskabidea, balorazioa eta laguntza ematea” atalari dagokionez, Iruñeko Udalak aipatutako oinarrietan zehazten du zein den larrialdiko laguntzak eskatzen dituzten pertsonen bete beharreko eskabide-eredua (I. eranskina), eta jasotzen du gizarte txosten bat aurkeztu beharra dagoela, III. eranskinean ageri den ereduaren arabera. H. letran, berriz, ebazpenaren jakinarazpena aipatzen da.

Aipatutako oinarrietan, beti zorraren edo diruz laguntzekoa den gastuaren justifikazioa eskatzen zen, haietan ezarritakoari jarraituz, diruz laguntzekoak diren kontzeptuak bereiziz; eta Udalaren oinarriak jada indarrean bazeuden arren Nafarroako Gobernuaren deialdia argitaratu zenean, Iruñeko Udalaren oinarrietan diruz lagundutako kontzeptu eta kategoriak Nafarroako Gobernuak 2015eko urrian argitaratutako deialdian jasotakoak ziren.

Hartara, bada, onuradunek baldintzak betetzei buruzko justifikazioa eta eskabidearen arrazoiaren beharra Iruñeko Udalaren larrialdiko laguntzako espediente guztietan jasota daude, behin eta berriz, eskatzaileak eskabidearen inprimakian egin beharreko aitortpenaren bitartez, nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioaren bitartez, eta balorazio bikoitzaren bitartez: batetik, gizarte langilea eta Harrera eta Orientazio Sozialeko programako arduraduna, balorazioa egin eta laguntza emateko proposamena egiten dutenak, eta, bestetik, udaleko kontu-hartzailearen bulegoaren oniritzia, laguntzaren kudeaketaren amaieran.

“Ordainketa eta geroko justifikazioa” atalari dagokionez, esan beharra daukagu Iruñean ordainketak, programaren arduradunaren oniritziarekin, gehienez ere 15 eguneko epean egiten zirela, laguntzen behalaketasuna zela eta (oinarrietako N letra, Ordainketa). Eta normalean eskatzaileari ordaintzen ziztaion, salbu eta pertsona horrek berariaz eskatzen zuenean hirugarren pertsona bati ordaintzeko; ho-

rretarako, dokumentu bat sinatzen zuen, zeinaren bidez emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidearen lagapena egiten zuen, berak izendatutako pertsona edo entitate baten alde, eta haren identifikazioa ematen zuen.

Laguntzaren justifikazioari dagokionez, “2015eko larrialdi sozialeko laguntzen lagina” izeneko IV.4.1 atalean aipatua, Iruñeko Udalari dagokionez esan beharra daukagu ezen, txostenean aipatzen den bezala, hura Ñ letran zehaztuta eta ezarrita datorrela. Udalaren deialdiaren JUSTIFIKAZIOA: “Diru-laguntza hauek egoera jakin bat aintzat hartuta ematen dira, eta akreditazio teknikoak besterik ez da eskatuko frogabide gisa. Akreditazio hori egiteko, eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, eskaria jaso duen gizarte laneko teknikariak egiaztatu eta balioetsiak; horri egoera justifikatzen duen txosten teknikoak erantsi beharko zaio, eta diru-laguntza eman aurreko egoera hori egiaztatzen duen eskaera; egiaztapen horiek eskatzailearen egoera sozial edota ekonomikoa justifikatzen duten intereseko agiriek osatuko dute, laguntza emateko aurkeztu behar direnak, deialdi honen G.4) atalean eskatutakoarekin bat”. Horixe ezartzen du Iruñeko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 34.3 artikuluko irizpideek (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotakoa betez onetsi da ordenantza hori). Izan ere, ordenantzaren honako hau ezartzen da: “Diru-laguntzak hartzailearen egoera jakin bat aintzat harturik ematen direnean, diru-laguntza eman baino lehen hartzailea egoera horretan aurkitzen dela frogatu beharko da, besterik gabe, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz, eta ez da bestelako justifikaziorik eskatuko, baina egoera hori egiaztatzeko kontrolak ezarri ahalko dira. Justifikazioa, horrenbestez, ez da diru-laguntza jasotzeko eragindako karga edo betebeharra, baizik eta diru-laguntza jasotzeko betekizuna”.

Aurrekoa gorabehera, eta ulertuta Administrazio Publikoak aurrerapausoak egin behar dituela garrantzitasunean eta aurrekontu publikoaren justifikazioa, Iruñeko Udalak bere araudia hobetu du atal horri dagokionez, Kontuen Ganberak geroztik egin dituen gomendioei jarraituz; hartara, 2016an argitaratutako oinarrietan, goian aipatutako paragrafoari, honako hau gehitu zaio, justifikazioari dagokionez: “Nolanahi ere, laguntza guztiak gastuen eta ordainketen ziurtagiriek justifikatu behar dira, Udalak egiaztatu ditzan. Izan ere, Udalak agirien laginketa baten bidez aztertu ahal ditu justifikazioak, bai eta beharrezkotzat jotako egiaztapen oro egin, laguntzaren xedea bete dadin”; eta 2017ko deialdian justifikazioari buruzko lerrokada aldatu eta honela zehaztu da: “Diru-laguntza hauek ematen dira deialdian jasotako egoera jakin batzuk aintzat hartuta. Frogabidea gastu- eta ordainketa-egiaztagiria izanen dira, eskaria jaso duen gizarte laneko teknikariak egiaztatu eta balioetsiak. Egiaztagiria fakturak izanen dira, edo, halakorik ezean, banku-laburpenak, ordainagiria, kaxako erregistroak, gastuen oharrak edo bestelako agiriak, eta eskatzailearen banakako espedientearen gainerakoarekin artxibatu beharko dira. Elikadura-gastuaren kasuan, haren justifikazioa egiten da eskatzaileak sinatutako agiri bat aurkeztuz, zeinean deklaratu baitu laguntza kontzeptu horretara bideratu duela (VII. ERANSKINA), prestazioaren eskaria izapidetu zueneko gizarte zerbitzuko gizarte laneko erreferentziako pertsona kontrastatua”.

Kontuen Ganberaren txostenak atal hau dela-eta ateratzen duen ondorioa da udal desberdinetan laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko prozeduretan dauden aldeak honako hauek direla: deialdiaren programak garatzerakoan zehaztapenik ez dago; denbora gutxi ematen da; populazioaren beharrezko desberdinetarako dira; eta barruti bakoitzaren egoera ekonomikoa eta oinarritzko gizarte zerbitzu bakoitzaren aurrekontua. Gainera, Kontuen Ganberak uste du ezen, baldintzei, zenbaterikoei eta prozedurei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren deialdiaren parametroak erabili beharko zirela oinarritzko gizarte zerbitzu guztietan; horri dagokionez, esan daiteke alde horiek direla, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren deialdia barruti bakoitzaren inguruabarren arabera egokitzea beharrezko egin dutenak. Zehazki, Iruñeak Nafarroako Gobernuaren deialdian ageri direnen antzeko kontzeptuak erabili ditu, eta lehendik ere erabiltzen zituen (2015eko eta 2016ko oinarrietan), eta 677.714,68 euroko aurrekontua bete du 2016an (horietatik, 668.033,55 euro finantzatu dira); 2015ean, aldiz, 384.229,19 euro bete ziren (366.067,48 euro finantzatu ziren), sartzeko antzeko baldintzei eta zenbaterikoei utsita bi deialdietan.

“Larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak emateko espedienteen lagin baten azterketa” izenburuko IV.4 atala dela-eta, Kontuen Ganberako txostenak jasotzen du Iruñeak “aldi berean izapidetzen zituen larrialdi sozialeko laguntzak eta laguntza bereziak, eskatzaileak konpromiso bat sinatuta, alegia, departamentuaren laguntzak jasoz gero besteak itzuli egiten zituela.” Eta egiazki hala egiten zuen, zeren eta udalaren laguntzak berak toki entitatearen deialdian aurkezten baitziren eskatzaileek eskubide izan zitzaizketen beste prestazio batzuen laguntza subsidiario gisa, eta bi eskabideen baterako izapidetzea aurreikusten baitzuten. (“...puntual eta subsidiarioak, aldizkakoak ez direnak...” B.I atalean. Eta honako hau jotzen da “...Deialdi honetan araututako prestazioa subsidiarioa da erkidegoan diren beste prestazio edo baliabide batzuekiko, edo horiek osatu daiteke... Baldin eta kontzeptu honengatik Nafarroako Gobernuaren aparteko diru-laguntzak eskatu badaitezke baina udal-zerbitzuek ordaintzeko

beharra berehalakotzat jotzen badute, ematen ahalko dira, Gizarte Politikako Departamentuari eskaera paraleloa eginez... Kasu horretan, onuradunak itzultzeko konpromisoa sinatu beharko du, baldin eta gero Departamendu horrek laguntza ematen badio..." D.3 eta 4. atalak. Udalak, bere prestazioen bitartez (ulertu beharra dago 2015aren hasieran ez zela aurreikusten Nafarroako Gobernuak horri buruzko inongo deialdirik ateratzea), bilatzen zuen bere herritarrentzat foru erkidegoan zeuden estaldura sozialekoak hobetzea; zehazki, Nafarroako Gobernuaren laguntza bereziei zegokienez, haien aurrerakin moduko bat zen, halako moduz non haien subsidiarioak izaten jarraituko zuten eta erabiltzaileek ez zituzten pairatuko ordainketa arinago egin behar izatearen ondorioak (laguntza berezi horiek baloratzeko epea 3 hilabetetik gorakoa zen).

Horri dagokionez, Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-lanean detektatu du bi administrazioek, alegia, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, agian gastu bererako laguntzak eman dituztela, baina halakoak gero ez zaizkiola itzuli Iruñeko Udalari; eta haren iritziz, beharrezkoak diren itzulketa espedienteak hasi beharko liriateke. Horri dagokionez, Iruñeko Udalak txostenean aipatutako espedienteak aztertuko ditu eta, kasua bada, behar diren itzulketa prozedurak hasiko ditu. Aipatu beharra dago hori zuzendu egin dela 2016ko eta 2017ko deialdietan, zeren eta 2016aren hasieran, Udalak jarraibideak eman baitzizkien udal gizarte zerbitzuetako teknikariei soilik larrialdiko laguntza kudeatzeko, izapide bikoitza egin gabe.

Eta, azkenik, programak hobetzeko prozesuari dagokionez, datu base bakar bat ezartzera iristeko Udal honi gelditzen zaion bakarra da Kontuen Ganberak egindako gomendioari atxikitzea, eta horretaz gainera, praktikotasun handiagoa izan dezan eta toki entitateen lan-zama gutxitzeko, gehitu behar dugu datu base hori urtearen hasieratik egonen dela prest, halako moduz non oinarrizko gizarte zerbitzuek bera erabili ahal izanzen baitute urte osoan zehar egiten dituzten eskaeretarako, Nafarroako Gobernuaren deialdia argitaratu aurretik kudeatutakoak geroztik eskatu behar izan gabe.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Sin.: Marisol de la Nava Martín, Iruñeko Udaleko Ekintza Sozialaren eta Komunitate Garapenaren Alorreko zuzendaria

Eskubide Sozialetako Departamentuaren alegazioak

Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena 10E/2015 Foru Agindua aztertzen du – haren bidez, "Gizarte larrialdietarako laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntza" izeneko deialdia onesten da–, bai eta ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan, uztailaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan (Gizarte Zerbitzuen Zorroa) eta abuztuaren 9ko 3422/2005 Ebazpenean araututako larrialdi sozialeko laguntza bereziak ere, Parlamentuak egindako eskariari erantzunez; izan ere, erakunde horrek eskatu zuen 2015. urteko honako hauek aztertzeko:

– Larrialdi sozialeko laguntzen bidez eta lehendik existitzen diren laguntzen bidez diruz lagundutako kontzeptuak, bikoiztasunik dagoen ala ez aztertuta. Bi deialdien baldintzak eta kasu guztietan eskatu diren egiaztatzea.

Egiaztatzea ea oinarrizko gizarte zerbitzuren bat ba ote dagoen larrialdietarako laguntzei edo haien zati bati uko egin diena baldintzen bat ezin egiaztatzeagatik.

Larrialdiko laguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura aztertzea.

– Eskubide Sozialetako Departamentuak, Kontuen Ganberako profesionalak egindako lana baloratzuz eta behin-behineko txosten horri dagokionez, honako hauek adierazi nahi ditu:

1.- Laguntzen xedearen oinarritzea, arau-esparrua eta oinarrizko gizarte zerbitzuek larrialdi sozialeko prestazioen kudeaketa dela-eta daukaten eskumena.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoaren oinarrizko unitateen gisara egituratu dira, eta herritarrengandik hurbilen dagoen maila da.

Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak esleitzen die gizarte zerbitzuei eskaerak egiten dizkieten pertsonen artean ematea, lehen erantzuna emateko (30.b artikulua), eta larrialdi sozialeko prestazioak kudeatzea (30.h artikulua).

Hori dela eta, behin beharrian larriko egoerak detektatuta, egoera ekonomikoaren ondorio gisa, eta aintzat hartuz beharrian horien erantzuna, behar den azkartasuna dela-eta, lehendik dauden baliabideen bitartez ezin dela eman, eta aintzat hartuz, halaber, departamentu honek hartu dituen konpromisoak, bai Programa-akordioan, bai Eskubide Sozialetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 128/2015 Foru Dekretuan, jo genuen larrialdi sozialeko laguntzak egituratzera herritarrei, oinarritzko gizarte zerbitzuen bitartez, beren beharrianetarako erantzun azkarra emateko tresna baten gisara.

Kontuen Ganberak aurkeztutako txostenean aipatzen den bezala, "gizarte zerbitzuen ehuneko 47k jada horrelako programak egiten zituzten" arren, Eskubide Sozialetako Departamentuak egokitzen duen laguntza horiek Foru Komunitateko lurralde osora hedatzea eta horrekin lurraldeko toki desberdinen arteko arrakala gutxitzen laguntzea. Horri esker, lehendik laguntza modu hori bazeukaten entitateen baliabidea indartzen da, eta aukera ematen zaio herritarren zati handi bati une horretara arte ez zeukaten baliabide bat eskuratu ahal izateko.

Halaber, laguntza horiek aukera ematen dute oinarritzko gizarte zerbitzuek bazterketa arriskuan dauden herritarren beharriari estaldura handiagoa emateko, eta beharrian horietarako berehalako erantzuna emateko.

2.- Larrialdiko laguntzak eta laguntza bereziak.

Kontuen Ganberak azaltzen duenaren arabera irudi lezakeen arren bi laguntza horien helburua bat izan daitekeela, honako zehaztapen hauek egin behar ditugu:

Lehenengo, larrialdiko laguntzen prebentzio-izaerak aukera ematen du zorra sortu baino lehen jarduteko; laguntza bereziak, ordea, sortuta dauden zorretarako ematen dira.

Bigarrenik, esparru subjektiboa desberdina da bi kasuetan. 65 urtetik gora dauzkaten pertsonak edo Nafarroan bi urtez baino denbora laburragoz bizilekua izan dutenek, besteak beste, ezin dituzte laguntza bereziak eskuratu: horixe izan zen larrialdi sozialeko laguntzak sortzea justifikatzeko beste arrazoi bat.

Hirugarrenik, prozedura askoz ere arinagoa eta malguagoa da larrialdiko laguntzen kasuan, eta aukera eman du beharrian desberdinei egokitzeko, udalaren beharrianen arabera; horrekin, berehalako erantzun bat ematen zaie larrialdiko egoera batean egon eta geroraterik gabe konponbide bat behar zuten herritarrei.

3.- Larrialdi sozialeko laguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko baldintzak eta prozedura.

Larrialdi sozialeko laguntzak eskuratzeko baldintzak, jada 2015eko deialditik, komunak dira: 18 urtetik gorakoa izatea; erreferentziako oinarritzko eskualdeko herriren batean erroldatuta egotea; hilabete-koak kontatuta, lanbidearteko gutxieneko soldatetik beherako baliabideak edukitzea; eta indar handiko edo nahi gabeko egoera ezustekoa izatea. Hori dela eta, erreferentzia-esparru komuna dago toki entitate guztientzat.

Toki entitateak dira laguntzak eman baino lehen proiektu bat aurkezten dutenak, programak nola garatu behar dituzten eta laguntzak emateko prozedurak eta irizpideak adieraziz, betiere deialdian jasotako baldintzen babesean, eta toki entitate onuradunak dira beren lurraldeetako beharrian sozialen arabera proiektuak diseinatzen dituztenak, jarduketak-lerroak lehenesten dituztenak eta planteatutako ekintzak betetzeko modua adierazten dutenak.

Gero, gizarte-langileek, prestakuntza berariazkoaren arabera eta beren irizpide teknikoari jarraituta, kasu bakoitzari egokitutako esku-hartzerako balorazioa, diagnostikoa eta proposamena egiten dute.

Irizpideetan ahal den homogeneousotasun handiena bilatuz, Eskubide Sozialetako Departamentuak, 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietan, diru-laguntzen deialdirako laguntza-gida bat eman du, haren kudeaketa errazteko.

4.- Laguntza bereziak.

Laguntza horiei dagokienez, Kontuen Ganberak azaldutakoari jarraituz, honako hau adierazi behar dugu:

Hobekuntza-tarteak detektatu dira; besteak beste, laguntzak emateko ebazpenean laguntza horien ordainketa-egiaztagiriak aurkezteko gehieneko epea jasotzea edo ordainketa-frogagiriak edo -egiaztagiriak aurkezterakoan zenbait kontzeptu eskatzea. Halakoak jada jaso egin dira.

Halaber, aplikazio informatikoetarako sarbideak (oinarrizko gizarte zerbitzuek ez zuten sarbiderik izan hasieratik) balio izan du irizpideak homogeneizatu eta baldintzak eta justifikazioak egiaztatzeko. Gogorarazi beharra dago oinarritzko gizarte zerbitzuak direla bai laguntza bereziak bai larrialdietakoak izapidetzen dituztenak; horrenbestez, alderdi horrek balio izan du informazio gehiago izateko, hura alde-ratu eta bikoiztasunik badagoen erabakitze aldera.

Gogoeta horiek gorabehera, departamentu honek egokitzen jotzen du, bai, aldaketak sartzeko laguntza bereziak emateko prozeduran, kasu guztietan laguntzen ordainketa aurreratze aldera, zein kontzepturako eman diren begiratu gabe, eta, gainera, epe bat ezartzea kasu guztietan ordainketa-egiaztatgiriak aurkezteko.

5.- 2016ko ekitaldirako deialdian sartutako hobekuntzak.

2015eko ekitaldiko diru-laguntzen deialdia ateratzeko izan zen premia aitortuta –haren helburua zen antzemandako beharrizan-egoerak, erantzun urgentea behar zutenak, arindu ahal izatea–, 2016an hobekuntza batzuk sartu ziren; hona hemen haien zehaztapenak:

- Deialdiaren lehenengo oinarrian (3. atala), honako hau jasotzen da berriaz: “ezin izanen dira izapidetu batera zenbateko/kontzeptu/faktura bererako diru-laguntza honen kargurako udal mailako larrialdiko laguntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren laguntza berezia”. Larrialdiko laguntza bat edo laguntza berezi bat eskatzeko irizpidea zehaztu behar da gizarte laneko profesionalaren balorazioaren bitartez, betiere onuradun bakoitzaren egoeraren arabera.
- Bigarren oinarrian definitzen da zer ulertu behar den larrialdi sozialeko laguntzat, bizikidetasuneko familia unitatetzat eta familia unitatearen baliabide ekonomikotzat.
- Larrialdiko laguntzen familia unitate bakoitzeko zenbatekoaren, kontzeptuaren eta kategoriaren mugak betetzeko kontrol-neurriak sartzeko tresna bat ezarri zen.
- Egoera ezustekoaren aipamena kentzen da, eta haren ordean honako hau sartzen da: “Bazterketa sozialeko egoerak saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren berriazko gastuei, apartekoiei, aurre egiteko zailtasunak izatea”.
- Deialdirako laguntza-gida bat prestatzen da, non honako hauek zehazten baitira:
- Araudia, prozeduraren faseak, programen baldintzak, larrialdi sozialeko laguntzen ezaugarriak, diruz laguntzekoak diren gastuak eta justifikazioa.
- Toki entitateek emandako diru-laguntzaren justifikazio ekonomikorako sortutako tresna informatikoan informazioa sartzeko moduari buruzko tutorial bat prestatzen da; tresna informatiko horrek laguntzaren kontrola eta kudeaketa hobetzen ditu.
- Laguntzen deialdia 2016ko ekainean egin zen.

6.- 2017ko ekitaldirako deialdian sartutako hobekuntzak.

Diru-laguntza hobetzearen eta kontrolatzearen ildo berari jarraituz, honako hauek dira 2017rako deialdian sartutako aldaketak:

- Laguntzen izena aldatu da, eta jasotzen dira bai berez larrialdi sozialeko egoeretara bideratutakoak, bai gizarteratze-prozesuak babesteko bideratutakoak. Horri dagokionez, deialdiak honako izen hau hartzen du: “Toki entitateentzako diru-laguntza deialdia, gizarte larrialdietako laguntzak eta/edo gizarteratze prozesuetan laguntzekoak banatzeko”. Deialdiaren izen berri horrek hobeki jasotzen du laguntza hauek, 2015eko urrian ezarri zirenetik, izan duten filosofia; izan ere, alde batetik beharrizan urgenteei berehala erantzuteko tresna bat dira, eta, bestetik, oinarritzko gizarte zerbitzuetako profesionalak tresna gisa erabil ditzakete bazterketa egoeran edo hartan egoteko arriskuan dauden pertsonen esku-hartze prozesuetan.
- Aurreko urtean jada ezarri zen tresna informatikoan beste bi kontrol-neurri sartzen dira: batetik, larrialdiko laguntza baten eskaera erregistratzerakoan, erreferentziako profesionalari ohar bat agertuko zaio, baldin eta larrialdiko laguntza eskatzen ari zaion erabiltzaileak lehendik laguntza berezi bat izapidetua badu; bestetik, laguntza berezien kudeaketarako erabiltzen den tresna informatikoan larrialdiko laguntzen kontzesioak jasoko dira, eta larrialdiko laguntzaren kategoriari, azpikategoriari eta zenbatekoari buruzko informazio guztia agertuko da, eta horrek aukera emanen du, laguntza berezia baloratu behar denean, egiaztatzeko ea kontzeptu eta faktura bererako beste laguntzaren bat eman ote den.

- Balizko onuradunen baldintzak zehazten dira, eta aipatzen da nola jokatu behar den familia unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko, eta diru-sarrera arruntak definitzen dira, bai eta laguntzeta-rako sarbidea ematen duten ondasun higigarriak eta higiezinak ere.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuen kudeaketa orientatzeko eta errazteko, laguntza-eskabidearen, gizarte txostenaren eta ebazpenaren ereduak emanen dira.
- Oinarri arautzaileetan jokabide egokietara zuzendutako alderdi batzuk sartzen dira:
 - ezin dira diru-laguntza hauen kontura egotzi toki entitateek familia-unitateei oinarrizko beharrak asetzeko ematen dizkieten aurrerakinak, baldin eta gizarteratze prozesuaren barrenean alderdiek adostutako akordioaren arabera itzuli behar badira;
 - diru-laguntzaren kontura egotziko dira soilik deialdian arautzen diren baldintzak betetzen dituzten laguntzak; beste termino batzuetan ematen badira, soilik toki entitateari egotziko zaizkio; bateragarriak izanen dira beste laguntza batzuekin, gastuaren zenbatekoa gainditzeko ez bada.
 - “Beste batzuk” atalean bidezkoa da sartzea oinarrizko gizarte zerbitzuen irizpide teknikoaren arabera gizarteratze prozesua errazten dutenak. Atal honetan, zenbateko ekonomikoetan muga bat ezartzen da.
- Laguntza hirugarrenei ordaintzea eta hori justifikatzea. Deialdian bertan jasotzen da aukera hori, baina erabiltzailearen berariazko baimena behar da horretarako.
- Laguntzen deialdia 2017ko apirilean egin zen.

7.- Amaierako ondorioa eta gomendioak.

Kontuen Ganberak dioen bezala, larrialdiko laguntzen 2015eko deialdiaren zailtasunetako batzuen (esate baterako, jarduteko tarte eskasa eta deialdiko zenbait puntu zehaztu gabe egotea) arrazoia izan zen Administrazioak herritar batzuen beharrezan urgente eta geroraezinei erantzun arin eta malgua eman behar izatea.

Eta Ganberak dioen bezala, funtzionaltasun falta horiek, zeinak lehendik ere bai baitzeuden, zenbait oinarrizko gizarte zerbitzutan lehenagotik programak bazeudelako, hurrengo urteetako deialdietan zuzenduta daude.

Halaber, geroko deialdietan, irizpideak eta prozedurak bateratu dira. Hala eta guztiz ere, ohartarazi beharra dago ezen, gizarte langileek prozeduraren funtsezko zati baten ardura dutenez eta izapidetzea oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, nekez iritsiko dela erabateko uniformetasunera, zeren eta teknikari bakoitzaren irizpidea eta profesionaltasuna errespetatu behar baita. Are gehiago, gogorarazi beharra dago toki entitate bakoitzak proiektu bat aurkezten duela baloratzeko, eta proiektu hori udal esparru desberdinetan detektatu diren beharrezan araberakoa izaten dela.

Kudeaketa- eta kontrol-prozedurei dagokienez, oinarrietan jada jasota bazeuden ere, 2017ko deialdian oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzari larrialdiko laguntzak kudeatzeko edo/eta gizarteratze prozesuak laguntzeko txostenen, eskabidearen eta ebazpenaren ereduak emanen zaizkio.

Kontuen Ganbararen gomendioei dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu labur:

I. Ontzat ematen dugu laguntza bereziak eta larrialdi sozialeko laguntzak bereizita mantentzea komeni dela dioen gogoeta dakarren gomendioa. Eskubide Sozialetako Departamentua jada lanean ari da bi laguntza horiek deialdi bakarrean biltzeko planteamenduaren inguruan. Horixe izan zen aurtengo deialdirako egin zen lehenengo proposamena, baina ezinezkoa izan zen, aurrez foru dekretu bidez araututa dagoen “gizarte zerbitzuen zorroa” aldatu behar zelako. Hala eta guztiz ere, Eskubide Sozialetako Departamentuak lan egiten jarraitzen du bi laguntza horiek batean biltzeari buruzko ideia dela eta, eta beharrezko diren arau-aldaketak aztertzen ari da, laguntzek balio dezaten bai larrialdiko egoerei erantzuteko, bai gizarteratze prozesuetan laguntzeko, eta, halaber, laguntza bermatuak izan daitezeko baldintzak bete eta haien beharra duten pertsonentzat, eta planteatutako beharrezan erantzun arin eta eraginkorra eman diezaieten.

II. Ontzat ematen dugu emandako laguntzen zenbatekoa eta zertarako aztertzeari ekiteko gomendioa, kasua bada, itzulketa-prozesuak irekiz.

Bi laguntzei eustea erabakitzeke kasurako eman diren berariazko gomendioei dagokienez:

I. Ontzat ematen dugu honako gomendio hau: “Laguntza hauek direla-eta oinarrizko gizarte zerbitzu guztientzako prozedura eta jarduketa-irizpide komunak ezartzea, ez dadin alderik gerta bizilekuaren

arabera, egoerak antzekoak direnean” Aurreratu dugun bezala, larrialdiko laguntzen ideietako bat da lurraldeko toki desberdinen arteko arrakala gutxitzea, haietarako sarbidea Foru Komunitateko herritar guztiei emanda. Are gehiago, ildo beretik jada 2016ko eta 2017ko ekitaldietan funtsezko hobekuntzak ezarri dira, prozedurak bateratzeko eta diru-laguntza hauek eskatzen dituzten toki entitate guztientzako jarduketa-irizpide komunak ezartzeko. 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldietako deialdietan, laguntza hauen onuradun diren pertsonak bete beharreko baldintzak jasotzen dira, bai eta kategoriak, azpikategoriak eta diruz laguntzekoak diren zenbatekoak ere. Aipagai ditugun laguntzak Diru-laguntzei buruzko Foru Legeari lotuta daude; horrenbestez, toki entitateek haiek betetzen dituzte aurrez aurkeztutako proiektuei jarraituz eta beren lurraldeko beharrezan araberak, zenbait kasuistika lehenetsi ahal diuzten. Ados gaude honako hau dioen gomendioarekin: “Larrialdiko laguntzen kudeaketarako, departamentuaren deialdian zehaztutako parametroak aplikatzea, eta ez oinarritzko gizarte zerbitzuek dauzkaten programa berekiak, deialdi horretan kontrakorik ezartzen ez den bitartean”. Oinarritzko gizarte zerbitzuak lotu behar zaizkie bai deialdiko oinarriei, bai Diru-laguntzei buruzko Foru Legeari.

II. Ontzat ematen dugu honako hau dioen gomendia: “Bidezkoa den guztietan, larrialdi sozialeko laguntzen eskaria dakarten zorren egiaztagiria biltzea”. Horri dagokionez, jada 2015eko ekitaldiko laguntzen deialdian, honako arau hau jasotzen da: “Gizarte larrialdietarako ematen diren laguntza guztiek gastu eta pagamenduaren frogagiriak beharko dituzte, kasuan kasuko kontrol organoak egiaztatu ahal izateko. Horrek laginen bidez berrikusten ahalko ditu”. Honako hau ere aipatzen du: “Frogagiriak fakturak izanen dira, eta, halakorik ezean, banku laburpenak, gordekinak, kaxako erregistroak, gastuen oharra edo bestelako agiriak. Betiere, diru-laguntza emateko banakako espedienteetan artxibatuta egon beharko dute. Horiek guztiak jatorrizko agiriak edo fotokopia konpulsatuak izanen dira”.

III. Ontzat ematen dira honako gomendio hauek: “Kasu guztietan, jasotako laguntzaren xedeari buruzko egiaztagiria eskatzea, dela larrialdiko laguntzetan, dela laguntza berezietan, funts publikoen erabileran gardentasuna lortzearen” eta “Laguntza berezien kasuan, aipatutako egiaztagiri horiek exigitzea laguntza eman ondoren, eskatzailea gastu horri aurre egitera ez behartzeko”. Laguntza berezietan dagokionez, egindako gomendioak berehala aplikatuko dira, laguntza emateko ebazpenean ordainketa-egiaztagiria aurkezteko epeak jarritz; kontzeptuak bereizi gabe, laguntza guztiak aurrez ordainduz; ordainketa-egiaztagiri guztiak berrikusiz, eta halakorik aurkeztu ezean itzulketa-prozedura abiatuz.

IV. Ontzat ematen da honako gomendio hau: “Larrialdi sozialeko laguntzetarako deialdia ahal bezain arin argitaratzea, oinarritzko gizarte zerbitzuek haren kudeaketaren plangintza hobeki egin ahal izateko”. Horri dagokionez, 2017ko deialdia apirilaren 3an argitaratu zen.

V. Ontzat ematen da honako gomendio hau: “Programak hobetzeko prozesuarekin jarraitzea, lan-zama gutxituko duen eta bi laguntzen artean faktura beraren zenbatekoa gainditzen duten diru-laguntza eman dadin saihesteko datu-base bakarra ezartzera iristeko”. Eskubide Sozialetako Departamentuak lan egiten jarraitzen du departamentuaren laguntza hauek eta beste laguntza batzuk kudeatzeko prozesuak optimizatuko dituzten balizko hobekuntzetan. Ildo horretatik, 2017rako tresna informatikoak, lehen ere aipatu dugun bezala, kudeaketa-prozedurak errazten ditu eta kontrol-tresna bat ematen du, larrialdiko laguntzen eta laguntza berezien bikoiztasunak saihesteko; horretaz gainera:

- Toki entitateek beren gain hartu behar izaten dituzten erregistro-lanak erraztu eta denborak gutxitzen ditu.
- Datuen fidagarritasuna bermatzen du. Tresna informatikoak, besterik adierazi ezean, ez du uzten emandako laguntzak sartzeko, baldin eta deialdiko baldintzetako bat (kategoriaren arabera gehieneko zenbatekoa, azpikategoriaren arabera gehieneko zenbatekoa, familia unitate bakoitzeko guztizko zenbatekoa, familia unitatearen diru-sarrerak) urratzen badute. Bestetik, espediente bat esleitzen dio izapidetutako laguntza bakoitzari, eta onuradunaren banku-kontuaren zenbakia sartzeko du.
- Zenbait aldagai sartzeko, aukera ematen duten emandako diru-laguntzaren eragina egoki ebaluatzeko: familia unitatearen datuak, familia unitateren hileko diru-sarrerak, kolektiboa eta abar.
- Txostena automatikoki sortzen du. Toki entitateko idazkariak ziurtatu beharko du gero.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak eman nahi dizkiogu Iruñeko Udalari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga